

BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA

JARDUEREN SEGIMENDUA

2017. URTEA



2018ko ekaina

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
1 SARRERA	7
2 JARDUEREN ANALISI METATUA NAZIOARTEKOTZE-BEKTOREEN ARABERA	17
2.1 Euskadiren proiektzioa kanpoan 1. Bektorearekin lotutako ekintzen analisia	21
2.2 2. bektorearekin, Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena, lotutako ekintzen analisia	24
2.3 3. bektorearekin, Europako esparruarekin lerrokatzea, lotutako jardueren analisia	27
2.4 Ezagutza erakartzea 4. bektorearekin lotutako ekintzen analisia	29
3 JARDUEREN ANALISIA EREMU TEMATIKOAREN ARABERA	31
3.1 Kanpo Harremanen Eremua	31
3.2 Enpresa-nazioartekotzeko Eremua	34
3.3 Kulturaren Eremua	36
3.4 Turismoaren Eremua	37
3.5 Bakearen eta Bizikidetzaren Eremua	38
3.6 Garapenerako Lankidetzaren Eremua	38
3.7 Berdintasunaren Eremua	39
3.8 Gobernu Irekiaren Eremua - Irekia	40
3.9 Lanaren eta Justiziaren eremua	40
3.10 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Eremua	41
3.11 Energiaren Eremua	42
3.12 Nekazaritza eta Arrantzaren Eremua	42
3.13 Enplegu eta Gizarte Politiken Eremua	43
3.14 Ogasun eta Finantzen Eremua	44
3.15 Etxebizitzaren Eremua	45
3.16 Hezkuntzaren Eremua	46
3.17 Hizkuntza-politikaren Eremua	47

3.18	Segurtasunaren Eremua	47
3.19	Osasunaren Eremua	48
3.20	Ingurumen eta Lurralde-politikaren Eremua	49
3.21	Garraioaren eremua	50
4	JARDUEREN ANALISIA EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA	51
4.1	Jarduerak lehentasunezko eta lehenetsitako herrialdeetan.....	53
4.2	Jarduerak lehentasunezko eskualdeetan	55
5	ONDORIOAK	58
5.1	Jardueraren orientazioa eta segimendua	58
5.2	Ardatz tematikoa.....	59
5.3	Ardatz geografikoa	60
5.4	Azken gogoetak	61

TAULEN AURKIBIDEA

- 1. Taula. Basque Country Estrategian proposatutako jarduketa-eremu geografikoak 12**
 - 2. Taula. 2017ko segimendua egiteko informazioa ematen duten Eusko Jaurlaritzaren organismoen eta BCEn jasotako edo 2014-2016 epean garatutako eremu tematikoen arteko konbertsioa.....16*
 - 3. Taula. Nazioartekotze-ekintzen kopurua 2017an, eremu tematikoaren eta nazioartekotze-bektorearen arabera*

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. *Irudia. Eusko Jaurlaritzak BCEren ezarpen-epean hedatutako nazioartekotze-ekintzen kopurua (2014-2017)*
2. *Irudia. Ekintzen kopurua eta ehunekoa nazioartekotze-bektorearen arabera, 2017*
3. *Irudia. 1. bektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera*
4. *Irudia. 2. bektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera*
5. *Irudia. 3. bektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera*
6. *Irudia. 4. bektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera*
7. *Irudia. Kanpo Harremanen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
8. *Irudia. Enpresa-nazioartekotzearen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
9. *Irudia. Kulturaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
10. *Irudia. Turismoaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
11. *Irudia. Bakearen eta bizikidetzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
12. *Irudia. Garapenerako Lankidetzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
13. *Irudia. Berdintasunaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
14. *Irudia. IREKIA Gobernu Irekiaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
15. *Irudia. Administrazio Publiko eta Justiziako eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
16. *Irudia. Teknologia eta Berrikuntzako Zentroen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
17. *Irudia. Energiaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
18. *Irudia. Nekazaritza eta Arrantzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
19. *Irudia. Enplegu eta Gizarte Politiken eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
20. *Irudia. Ogasun eta Finantzen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
21. *Irudia. Etxebizitzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
22. *Irudia. Hezkuntzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
23. *Irudia. Hizkuntza-politikaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
24. *Irudia. Segurtasunaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*

25. *Irudia. Osasunaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
26. *Irudia. Ingurumen eta Lurralde-politikaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
27. *Irudia. Garraioaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera*
28. *Irudia. Burututako ekintzen ehunekoa jarduketa-eremu geografikoaren arabera, 2017¹*
29. *Irudia. Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze-ekintzen kopurua herrialdeen arabera, 2017²*
30. *Irudia. Ekintzen kopurua eta ehunekoa eremu tematikoaren arabera, 2017*

¹ Grafiko hau egiteko, kontuan hartu da nazioartekotze-ekintza batzuek eremu batean baino gehiagotan eragiten dutela eta zenbaketa horren arabera egin da.

² Irudi hau egiteko, zehazki herrialde batera edo batzuetara zuzendutako edo bideratutako jarduketak soilik hartu dira kontuan eta azterketatik kanpo geratu dira jarduketa orokorrak edo geografia anitzeko ikuspegia zutenak. Bestalde, jarduketak zuzenduta zeuden lurraldearen arabera zenbatu dira, egikaritu diren leku fisikoa gorabehera.

1 SARRERA

Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia, aurrerantzean, BCE, 2014tik Euskadiren nazioartekotze-politika eremu tematiko guztietan gidatzen duen tresna da, Euskadiren posizionamendua eta munduan duen eragina finkatze aldera eta nazioarteko erreferentziazko lurraldea bihur dadila lortzeko.

Zentzu horretan, BCEk arreta nagusia jartzen du **herrialde-markan**, nazioarteko proiektzioarako eta mundura zabaltzeko funtsezko tresna gisa. Horrek, Euskadiren indarretatik eta berezitasunetatik abiatuta, Euskadi eragile global gisa kokatzen lagunduko du, bikaintasun-erreferente, bizi-kalitatearen eredu eta gizarte-kohesioko adibide gisa, baita lurralde berritzaile eta lehiakorren eredu gisa ere. Tresna horrek euskal gizarteak partekatzen dituen balioak proiektatzen ditu, kanpoaldearekiko loturak indartzen ditu eta euskal interesak nazioarteko agertokian sustatzeko balio du.

Gainera, BCE beste asmo batekin sortu da, zehazki, nazioarteko abangoardiarekiko loturak ezartzekoa edota mantentzekoa alor desberdinetan (erakundeena; ekonomia eta enpresena; zientifiko-teknologikoa; kulturala; osasuneko; ingurumeneko; garapenerako lankidetzarena, etab.). Estrategia horri esker, espazio bat sortuko da **ikuspegiak eta jardunbide egokiak partekatzeko eta ezagutza berria erakartzeko**; hori guztia testuinguru batean non globalizazioa eta interdependentzia gero eta handiagoak diren eta non nazioarteko erreferentzia diren herrialdeekiko eta eskualdeekiko eta kanpoan dauden euskal erkidegoekiko harremanak indartzea eta estutzea berebizikoa den.

BCE abiaraziz, Euskadik, lehenik eta behin, **Europar Batasunerantz** begiratzen du, politikaren eta erakundearen eta sektore anitzeko ikuspegi batetik eta publiko-pribatuaren gakoan kokatzeko lehentasunezko estatuz gaindiko esparru gisa. Ildo beretik eta subsidiarotasuneko eta maila anitzeko gobernanzako printzipioen pean, Euskadi bere interesekoak eta eskumenekoak diren kontuak erabakitzen diren Europa mailako foroetan egotea giltzarria da erabakiak hartzeko prozesuetan eragiteko, euskal interesak nazioarteko mailan sustatzeko, beste lurralde homologo batzuekiko sinergiak baliatzeko eta jardunbide publiko egokiak erakartzeko eta partekatzeko.

Europako lurraldetik harago, BCEk Euskadiren presentzia areagotzea aurreikusten du bestelako eremu geografiko batzuetan, arreta berezia jarriz **garapen bidean dauden herrialde eta**



eskualdeetan, zehazki, **alde biko eta anitzeko harremanak indartuz eta euskal eragile publikoak eta pribatuak sartuz sare tematiko estrategikoetan.**

Hauxe da BCEren ikuspegia: “Euskadi XXI. mendearen abangoardian kokatu nahi dugu, eragile globala izatea nahi dugu, Europaren eraikuntzan bere lekua duena, herrialde erakargarria, lehiakorra oso, aitortua berezia izateagatik eta giza garapen iraunkorrean goian ibiltzeagatik, solidarioa, ate-leihoak mundura zabalik dituena eta atzerriko euskaldunekin **estu-estu lotuta dagoena**”. Hala, ikuspegi horrek laburtzen zituen aipatutako mugarriak, baita X Legegintzaldiaren Gobernu Programan ezarritako helburuak ere.

Horrela, 2014an onetsitako strategiaren ikuspegia zenbait nazioartekotze-helburu estrategikotan gauzatzen da, aldi berean, **nazioartekotzeko lau bektore komunen** bidez hedatuko direnak:

- *1B. Euskadiren proiektzioa kanpoan*
- *2B. Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena*
- *3B. Europako esparruarekin lerrokatzea*
- *4B. Ezagutza erakartzea*

Lehenengo bektorea, “Euskadiren proiektzioa kanpoan”, Basque Country markaren eraikuntza kolektiborantz eta hedapenerantz bideratzen da: gizarteak, erakundeek eta eragile sozio-ekonomikoek parte hartutako eta partekatutako herrialde-marka bat, Euskadik herrialde gisa dituen bereizgarriak mundurantz proiektatzeko eta euskal gizartea erreferentea den politika eta alderdiak hedatzeko balio duena.

Horri dagokionez, Euskadik **berezitasun eta ezaugarri paregabeak** ditu, hau da, nazioarteko proiektzioa egituratzeko oinarritzat hartuko direnak: hizkuntza, bizikidetzaren bezalako balioak edo autogobernuan, berdintasunean edo politika industrialean egindako ibilbide luzea. Hain zuzen ere, aktibo horien gainean finkatzen da **herrialde-marka**, proiektuak, inbertsioak, adimena edo turistak erakartzeko partekatutako tresna gisa, horiek guztiek eragin positiboa izan dezaten Euskadiren garapen ekonomikoan eta kanpoko sektore anitzeko posizioan.

Izan ere, Euskadi nazioartean kokatzea da nazioartekotze-bektore honen helburu nagusia, euskal erakundeek eta eragileek eremu eta sektore desberdinetan erabiltzen duten marka-irudi indartsu baten bidez, foroetan, nazioarteko sareetan eta nazioarteko proiektuak bestelako mekanismoetan presentzia areagotzeko eta sustatzeko balio duena.

“Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena” izeneko bigarren bektorearen xede nagusia da lehiakortasuna eta garapen soziala eta ekonomikoa indartzea, euskal eragile sozio-ekonomikoen nazioartekotzea sustatuz sektore anitzeko ikuspegi batetik.

Helburu horrekin, erakundeetatik, alde biko harremanak sustatzen dira eta akordioak gauzatzen dira nazioarteko antolakuntzekin, Euskadiren sektore anitzeko interesak defendatzeko, eta, horrez gain, euskal *expertitise* eta *know-how* hedatzea sustatzen da. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioarteko jardura Euskadi abangoardiarekin eta nazioarteko mailako erabakitze zentroekin konektatzera dago bideratuta, alde biko eta anitzeko harremanen bidez. Horretarako, abaguneak antzemango dira eta euskal eragileen nazioartekotze-prozesuan laguntzen duten mekanismoak gaituko dira.

Bestalde, **“Europako esparruan lerrokatzea” izeneko hirugarren bektorea** Euskadiren nazioarteko jardueraren lehentasunezko ardatzean oinarritzen da: Europar Batasuna. Bektore horren bidez, euskal erakundeen eta eragileen presentzia indartu nahi da Europar Batasunetik sustatutako mekanismoetan, programetan eta proiektuetan.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak presentzia gehiago lortu nahi du bere interesekoak eta eskumenekoak diren kontuak ebazten diren eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko Europako foroetan, bereziki, Euskadiren autogobernuan zuzenean eragiten duten kontuak ebazten diren horietan.

Bektore horrekin bat eginez, lankidetzeta-hitzarmenak eta aliantza estrategikoak ezartzen dira eta ezagutza-sareetan parte hartzen da, Europan euskal presentzia indartzeko mekanismoak direlako, Euskadik Europaren eraikuntza-prozesuan duen paper aktiboa areagotzeko eta protagonismo gehiago emateko Estaturik gabeko herriei eta nazioei, Europako proiektuaren barruan, alegia.

Halaber, bereziki aipatu beharra dago Europa barruko **mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzeta**, Euskadi partekatutako interesak dituzten eskualde homologoekin integratzea errazteko lehentasunezko jarduketa-esparru gisa, bereziki Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen barruan.

Azkenik, **“Ezagutza erakartzea” izeneko laugarren bektoreak** bikaintasunean aurrera egiteko ezagutza gehitzera bideratutako nazioarteko jardura osoa biltzen du, sektore anitzeko ikuspegi batetik. Bektore horri jarraiki, erreferentziazko herrialdeekin eta eskualdeekin alde

biko harremanak eta lankidetzak-akordioak ezartzen dira baterako proiektuak burutzeko, hain zuzen ere, proiektu horiei esker esperientzien eta ezagutzen partekatze aberasgarria lortzeko eta, horrela, sinergiak sortzeko lurraldeen artean. Beraz, *expertise* eta adimena txertatzearen aldeko apustua egiten da, Euskadi trebatutako profesionalentzako norako erakargarria bihurtuz eta punta-puntako ezagutza-azpiegiturak ezartzeko.

BCEk nazioartekotzeko lau bektore horien hedapena 19 eremu tematikotan banatzen zuen. Hala ere, 2014-2016 epealdian, hasiera batean estrategiaren diseinuan aurreikusi ez ziren beste bi eremu berri agertu ziren: Ogasuna eta Finantzak eta Gobernu Irekia.

Guztira, **hogeita bat eremu tematiko** horiek batera laguntzen dute, bakoitzak bere jarduketa-eremuan eta dituzten gaitasunen, aktiboen eta baliabideen arabera, Euskadi nazioartekotzen, zehazki, aurretik aipatutako lau bektore horiek hedatuz. Estrategian ezarritako eremu guztiak hauek dira:

1. Kanpo Harremanen Eremua
2. Enpresa-nazioartekotzeko Eremua
3. Kulturaren Eremua
4. Turismoaren Eremua
5. Bakearen eta Bizikidetzaren eremua
6. Garapenerako Lankidetzaren Eremua
7. Berdintasunaren Eremua
8. Gobernu Irekiaren Eremua - Irekia
9. Administrazio Publiko eta Justiziako Eremua
10. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Eremua
11. Energiaren Eremua
12. Nekazaritza eta Arrantzako Eremua
13. Enplegu eta Gizarte Politiken Eremua
14. Ogasun eta Finantzen Eremua
15. Etxebizitzaren Eremua

16. Hezkuntzaren Eremua
17. Hizkuntza-politikaren Eremua
18. Segurtasunaren Eremua
19. Osasunaren Eremua
20. Ingurumen eta Lurralde-politikaren Eremua
21. Garraioaren eremua

BCEk eremu tematiko horien nazioarteko hedapena bideratzen du Euskadiren kanpoko proiektiorako estrategikotzat hartzen diren zenbait **jarduketa-eremu geografikoetara**. Kanpoan euskal interesen zati nabarmena biltzen duten lurraldeen zerrenda bat da, Eusko Jaurlaritzak kanpoaldean abiarazten dituen ekimen gehienek xede izan beharko liratekeenak. Lehenespenez ariketa hori egiteak ez du esan nahi beste geografia batzuetan sortutako aukerak edo behar sektorialak asetzen dituztenak kontuan hartzen ez direnik.

BCEn sartutako herrialdeak eta eskualdeak bi lehentasun-maila desberdinetan banatzen dira. Hala ere, guztiek ordezkatzeko eremu tematikoen zati nabarmen batentzako abagune- eta interes-arlo bat.

Lehenengo mailan, Eusko Jaurlaritzako Sailen eta bere sektore publikoaren interes globalik handiena biltzen duten **lehentasuneko herrialdeak eta eskualdeak** daude kokatuta. Bigarren mailan, aldiz, jarduketa-eremu tematiko gutxiago batzuentzako interesa hartzen duten **lehentasuneko herrialdeak eta eskualdeak** daude bilduta.

Elkartutako organismoen eta sailen interesen eta motibazioen arabera, jarduerak bi tipologia desberdinetan sailkatzen dira: **ikastea eta neurtzea eta irakastea eta partekatzea**.

Tipologia horietako lehenengoa, hau da, ikasi eta neurtzeko Euskadirentzat erreferentziakoak diren beste herrialde edo eskualde batzuek burututako jardunbide egokiak eta izandako esperientziak ezagutzera dago bideratuta. Irakatsi eta partekatzearen bigarren tipologia horren xedea da Euskadiko eragile sozioekonomikoen eta administrazioaren berezko politika publikoak diseinatzeari eta ekiteari buruzko ezagutza transferitzea nazioarteko eremura.

1. Taulan adierazten dira Eusko Jaurlaritzarentzat eta bere nazioarteko jardura eta garapenera begira lehentasunekoak diren eremu geografikoak, herrialdeak eta eskualdeak, bai ikasteko eta neurtzeko ikuspegitik, bai irakasteko eta partekatzeko ikuspegitik.

2. Taula. Basque Country Estrategian proposatutako jarduketa-eremu geografikoak

JARDUN EREMU GEOGRAFIKOAK		LEHENTASUNEZKO HERRIALDE ETA ESKUALDEAK		LEHENETSITAKO HERRIALDE ETA ESKUALDEAK	
		IKASI ETA KONPARATU	IRAKATSI ETA ELKARTRUKATU	IKASI ETA KONPARATU	IRAKATSI ETA ELKARTRUKATU
EUROPA 	Herrialdeak	<ul style="list-style-type: none"> • Europar Batasuna • Eskandinaviako herrialdeak • Alemania • Danimarka • Frantzia • Erresuma Batua 	<ul style="list-style-type: none"> • Europar Batasuna • Eskandinaviako herrialdeak • Alemania • Frantzia • Erresuma Batua 	<ul style="list-style-type: none"> • Holanda • Irlanda 	<ul style="list-style-type: none"> • Errusia • Turkia
	Eskualdeak	<ul style="list-style-type: none"> • Akitania • Bavaria 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskozia • Flandria 		
AMERIKA 	Herrialdeak	<ul style="list-style-type: none"> • Estatu Batuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Estatu Batuak • Latinoamerika • Mexiko • Brasil • Kolonbia • Peru 	<ul style="list-style-type: none"> • Kanada 	<ul style="list-style-type: none"> • Argentina • Txile
	Eskualdeak				<ul style="list-style-type: none"> • Querétaro
ASIA 	Herrialdeak	<ul style="list-style-type: none"> • Korea • India • Singapur 	<ul style="list-style-type: none"> • Txina • India 	<ul style="list-style-type: none"> • Japonia 	<ul style="list-style-type: none"> • Malaysia • Indonesia • Vietnam
	Eskualdeak				<ul style="list-style-type: none"> • Jiangsu
AFRIKA 	Eskualdeak		<ul style="list-style-type: none"> • Hegoafrika 		
EKIALDE ERTAINA 	Herrialdeak			<ul style="list-style-type: none"> • Israel 	<ul style="list-style-type: none"> • Golkoko herrialdeak

Iturria: Basque Country Estrategia

Lehentasunezko eremuen artean, Europa nabarmendu behar da eta, zehazki, Europar Batasuna. Hori horrela da, tradizionaliki, Europa izan delako euskal kanpo harremanen fokuetako bat, hau da, Euskadi herrialde gisa nazioartean garatzeko lehentasunezko testuinguru naturala. Horrez gain, Amerikako eremua (bereziki Latinoamerikako herrialdeak), Asiakoa eta, neurri txikiagoan, Afrikakoa agertzen dira. Zehazki, lehentasunezko eskualdeei eta herrialdeei dagokienez, hauek aipatu behar dira:

- **Europar Batasuna**, non nabarmentzekoak diren herrialde nordikoak, nagusiki Danimarka eta Finlandia. Izan ere, herrialde horietako gizarte-ongizate maila altuko

sistemak erakargarriak dira Euskadirentzat eta bi esperientzia horiengandik ikasi daiteke, baita ezagutza partekatu ere. Alemania, Erresuma Batua eta Frantzia ere lehentasunezko herrialdeztzat hartzen dira, euskal esportazioen merkatu hartzaile nagusiak baitira. Europako Akitania Berria, Eskozia, Bavaria eta Flandria **eskualdeak** Euskadiren lurralde homologotzat hartzen dira, zeinekin lotura zuzenak ezarri behar diren eta esperientziak eta ezagutza partekatu ere bai.

- **Ipar Amerikan, Mexiko eta Estatu Batuak** nabarmendu behar dira, euskal jatorriko ezagutza, ondasunak eta zerbitzuak esportatzeko herrialde gisa aurkezten direnak.
- **Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikan**, Brasil, Kolonbia eta Peruko kasuak nabarmendu behar dira. Izan ere, horiek lehentasunezko eremu geografikoak dira Euskadirentzat, horien artean dauden lotura historikoengatik eta hedapen ekonomikoko eskualde-izaera dutelako.
- **Asiari** dagokionez, BCEk ezartzen du India, Korea eta Singapur direla lehentasunezko intereseko herrialdeak, zeinengandik ikasi dezakegun.
- Afrikan, **Hegoafrikako Errepublikan** jartzen du Euskadik arreta gehiena nazioarteko estrategia garatze aldera.

Lehentasunezko herrialdeen eta eskualdeen artean, Europaren barruan, **Holanda eta Irlanda** nabarmendu behar dira; jotzen da Euskadik horiengandik ikasi dezakeela eta jardunbide egokiak erauzi. Bestalde, jotzen da **Errusia eta Turkia** ezagutza helaraz daitekeen herrialdeak direla eta bertan ondasunak eta zerbitzuak merkaturatu daitezkeela. Era berean, eremu horretan, hauek nabarmendu behar dira:

- **Amerikan, Argentina eta Txile** lehentasunezko herrialdeztzat hartzen dira irakatsi eta partekatzeko eta Euskadiren *know how* industrialak sustatzeko. Bestalde, **Kanada** horrengandik ikasteko herrialdeztzat hartzen da.
- Asian, hego-ekialdeko Asiako **Indonesia, Malasia eta Vietnam** herrialdeek aukera ematen dute euskal ondasun eta zerbitzuekin komertzializatzeko. **Japonia** garapen-maila altuko herrialdeztzat hartzen da, zeinarengandik jardunbide egokiak erauzi ahalko diren.
- Ekialde Hurbilean, jotzen da **Israel** dela horrengandik ikasteko herrialde bat eta, **Golkoko Herrialdeak**, aldiz, euskal gaitasunak eta ezagutza erakusteko gune geografikoa.

Horrez gain, Querétaro (Mexiko) eta Jiangsu (Txina) eskualdeak interesekotzat hartzen dira.

2014-2016 hirurtekoan, estrategiaren ezarpena arrakastatsua izan zen, bai jorratutako eremu geografikoen ikuspegitik, bai erakunde-eragile desberdinek jarduketa-eremu tematikoetan erdietsitako jarduera handiagotik. Tresna estrategiko honen lehenengo hiru urtetako ibilbidean zehar, erakutsi egin da nazioartekotzea euskal erakunde-eragileen eta eragile sozioekonomikoen DNAn finkatutako jardunbide bat dela eta, gainera, jarduketa-eremu guztietan zeharkakotzat hartzen dela.

Izan ere, hasiera batean herrialdearen **nazioartekotzerako oinarrikotzat** hartutako eremu tematikoak lau izan ziren arren (**Kanpo Harremanak; Enpresa-nazioartekotzea, Turismoa eta Kultura**), beste eremu tematiko batzuen ekarpena areagotu egin da eta hori strategiaren barneratzearen eta heltzearen seinale da.

2016ko azaroan hasitako **XI Legegintzaldiari** dagokionez, estrategia hau **2016-2020 Gobernu Programaren** Herrialde-helburuetan sartzen da eta esparru-programa horretan jasotako 15 plan estrategiko horietako bat da. Hain zuzen ere, *Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobea dakarrena* izeneko *I.1. Ardatzean* dago jasota eta hiru konpromiso ditu lotuta (21., 22. eta 23. konpromisoak).

Hala, 2016-2020 Gobernu Programak nazioartekotzea ezartzen du Euskadiko ekonomiaren eta enpleguaren indarberritzea finkatzeko lau oinarri horien artean. Ikuspegi horren pean, 2017an, **Basque Country 2020 Estrategia eguneratzeko prozesu** bat hasi zen, ikuspegia egungo testuingurua egokituz. Lehendakariak 2018ko urtarrilean aurkeztutako eguneraketa horretarako, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak zuzendutako prozesu parte-hartzaile bat abiarazi da, herritarrak, eragile sozio-ekonomikoak eta Eusko Jaurlaritza eta bere sektore publikoa inplikatu dituenak.

Beste alderdi batzuen artean, hauek dira BCEren eguneraketak kontuan hartzen dituenak: **XI Legegintzaldiaren Gobernu Programa**; NBEren 2030 Agenda; testuinguru geopolitiko global berria; X Legegintzaldian erdietsitako lorpen nagusiak eta Euskadik dituen aktiboak eta gaitasunak etorkizuneko erronkei eta aukerei aurre egiteko, hain zuzen ere, nazioartekotze hori lortze aldera.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak zuzendutako prozesu parte-hartzailetik eta aurreko elementuetatik, planteamendu berriak sortu dira eta, horiei esker, **ikuspegi estrategikoa eguneratu** ahal izan da: 2018tik aurrera strategiaren pisu nagusiak erakundeen kanpo harremanetan, enpresa-nazioartekotzean, kulturen eta turismoan jarraituko duen arren,

garapenerako lankidetzaren eta kirolaren eremuak gehitzen dira Euskadi Basque Country Estrategia abiarazteko funtsezko oinarri gisa.

Era berean, **helburuak XI Legegintzaldiaren Gobernu Programan ezarritakoarekin lerrokatu egin dira; nazioartekotze-bektoreak apur bat aldatu dira edo horien izena aldatu da egungo epera egokitzeko** eta, horrez gain, **jarduketa-eremuak areagotu dira**, 19tik (2014ko BCE) 27ra. Gainera, lehentasunezko **jarduketa-eremu geografiko berriak** ezarri dira eta gobernantza- eta kontrol-sistema optimizatu egin da **Aginte-koadro** bat ezarriz, BCEren eragina neurtzeko. Halaber, **Monitorizazio Sistema** bat ezarri da jardueren tipologiaren arabera eta horrek nazioartekotzearekin lotutako lanaren segimendu eraginkorra eta objektiboa egitea ahalbidetzen du, zehazki, ezarritako 27 jarduketa-eremu tematiko horietan.

BCEren eguneraketarekiko modu paraleloan eta bateratuan, **Kanpo Harremanetarako Plan berri bat (2018-2020)** sortu da eta hori, **Enpresa-nazioartekotzeko 2017-2020 Planarekin** batera, BCEn Nazioartekotzeko Plan Sektorialak sortzeko aurreikusitako dinamikaren barruan sartzen da.

2017ko ekitaldia **birplanteamenduko eta eguneraketa estrategikoko** urtea izan da; hala ere, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioarteko jarduerak aurrera egin du 2014an onetsitako BCEn oinarrituz.

Hortaz, txosten honek 2017an Eusko Jaurlaritzaren sail desberdinek eta elkartutako erakundeek Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020 - 2014 Basque Country Estrategiaren esparruan burututako jardueren segimenduaren emaitzak aurkezten ditu. Hala, **txostenaren xedea** da 2017an Eusko Jaurlaritzaren Sailei nazioarteko mailan egindako segimenduaren informazioa laburtzea eta aztertzea.

Txostenaren egiturari dagokionez, lehenik eta behin, estrategian ezarritako nazioartekotzeko lau bektoreetan oinarritutako analisi bat egiten da; geroago, batetik, eremu tematiko bakoitzaren azterlan zehatzagoa garatzen da eta, bestetik, ezarritako eremu geografikoen araberako analisi bat egiten da.

Bukatzeko, 2017an Eusko Jaurlaritzaren Sailek eta sektore publikoak burututako jardueren analisitik ateratako zenbait ondorio aurkezten dira.

2 JARDUEREN ANALISI METATUA NAZIOARTEKOTZE-BEKTOREEN ARABERA

Atal honetan, **2017an Eusko Jaurlaritzaren Sailek eta elkartutako organismoek burututako jardueren** gainean egindako segimendua aurkezten da, BCEn ezarritako nazioartekotzeko lau bektore komunekiko lerrokatze-maila aztertuz.

Aurretik aipatu den bezala, BCEren eta horren helburu estrategikoen ikuspegia partekatzen da Eusko Jaurlaritzaren osotasunean eta **nazioartekotzeko lau bektore komunen** arabera hedatzen dira:

- **1. BEKTOREA: Euskadiren proiektzioa kanpoan**
- **2. BEKTOREA: Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena**
- **3. BEKTOREA: Europako esparruarekin lerrokatzea**
- **4. BEKTOREA: Ezagutza erakartzea**

Lau bektore horietan oinarrituta egindako analisiak ikuspegi tematikoa eta geografikoa hartzen du. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren Sailek eta organismo publikoek emandako informazioa BCEn ezarritako hemeretzi eremu tematikoekin lotu egin da, gehi Irekia - Gobernu Irekiaren eta Ogasun eta Finantzen eremuak.

2. Taula. 2017ko segimendua egiteko informazioa ematen duten Eusko Jaurlaritzaren organismoen eta BCEn jasotako edo 2014-2016 epean garatutako eremu tematikoen arteko konbertsioa


Saila	Idazkaritzak, sailburuordetzak, zuzendaritzak eta organismoak	Eremu tematikoa
LEHENDAKARITZA	Gobernu Irekiaren Zuzendaritza - Irekia	GOBERNU IREKIA - IREKIA
	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia	KANPO HARREMANAK
	Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia	BAKEA ETA BIZIKIDETZA / GARAPENERAKO LANKIDETZA
	Emakumearen Euskal Institutua - Emakundea	BERDINTASUNA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILA	Parke teknologikoak	Teknologia eta Berrikuntza Zentroa
	Basque Cybersecurity Centre	Teknologia eta Berrikuntza Zentroa
	Nazioartekotze Zuzendaritza	ENPRESA-NAZIOARTEKOTZEA
	SPRI Taldea	ENPRESA-NAZIOARTEKOTZEA
	Azpiegituren eta Garraioen sailburuordetza	GARRAIOAK
	Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	ENERGIA
	Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasunaren sailburuordetza	Teknologia eta Berrikuntza Zentroa
	Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza	NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
	Energiaren Euskal Erakundea	ENERGIA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK
	Gizarte politiken sailburuordetza	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK
INGURUMEN, LURRALDE-PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA	Ingurumen sailburuordetza	INGURUMENA ETA LURRALDE-POLITIKA
	Etxebizitza sailburuordetza	ETXEBIZITZA
	Lurralde-plangintzako sailburuordetza	INGURUMENA ETA LURRALDE-POLITIKA
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	Ekonomia, Finantzak eta Aurrekontuen sailburuordetza	OGASUNA ETA FINANTZAK
HEZKUNTZA SAILA	Hezkuntza sailburuordetza	HEZKUNTZA
	Lanbide-heziketaren sailburuordetza	HEZKUNTZA
	Unibertsitateen eta ikerketaren sailburuordetza	HEZKUNTZA
OSASUN SAILA	Osasun sailburuordetza	OSASUNA
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA	Turismo eta merkataritza sailburuordetza	TURISMOA
Kultura eta Hizkuntza-politikako Saila	Etxepare Institutua	KULTURA
	Kultura sailburuordetza	KULTURA
	Kultura sustatzeko zuzendaritza	KULTURA
	Hizkuntza-politikako sailburuordetza	HIZKUNTZA-POLITIKA
SEGURTASUN SAILA	Segurtasuneko sailburuordetza	SEGURTASUNA
	Ertzaintza	SEGURTASUNA
LAN ETA JUSTIZIA SAILA	Lan eta Gizarte-segurantza sailburuordetza	LANA ETA JUSTIZIA

Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

2017an, Eusko Jaurlaritzak eta horren sektore publikoak **873 nazioartekotze-ekintza** burutu zituzten.

Hortaz, **nazioartekotze-ekintzen kopuruaren ibilbidea oso positiboa** izan da 2014an estrategia onetsi zenetik; orduan, nazioartekotzeko 333 ekintza zenbatu ziren eta, beraz, **2014tik 2017ra, % 162ko hazkundera** egon da.

31. Irudia. Eusko Jaurlaritzak BCEren ezarpen-epean hedatutako nazioartekotze-ekintzen kopurua (2014-2017).



Iturria: Berezko lanaketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Beraz, oro har, 2017an, aurreko urteetan baino ekintza gehiago garatu egin dira.

Egitate horrek erakusten du **gobernuko sailen eta sektore publikoaren estrategiarekiko konpromisoa eta atxikimendua** areagotu egin direla, herrialdea nazioartekotzeko funtsezko mekanismoa den aldetik.

2017. ekitaldian eremu tematiko bakoitzean egikaritutako eta nazioarteko osagaia duten proiektuen kopuruan zentratutako analisi xehe batean, egiaztatzen da, BCEn aurreikusitako eremu guztietan nazioartekotze-ekintzak egikaritu diren arren, horietako batzuk, besteak beste, Enpresa-nazioartekotzea edo Kanpo Harremanak nabarmentzen direla, kanpoalderantz orientatuta daudelako berez, BCEren hedapenerako oinarri gisa. Horrela, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, 2017an, bereziki nabarmentzekoa da **Kanpo Harremanen, Enpresa-nazioartekotzearen, Hezkuntzaren, Segurtasunaren eta Ingurumenaren** eremuek burututako nazioartekotze-jarduera, hain zuzen ere, burututako nazioartekotze-jardueren kopuruagatik:


3. Taula. Nazioartekotze-ekintzen kopurua 2017an, eremu tematikoaren eta nazioartekotze-bektorearen arabera

Eremu tematikoa	V1	V2	V3	V4	Guztira
Deskripzio-memoria 1. Zerbitzuak Kanpo harremanak	86	112	44	8	250
2. Enpresa-nazioartekotzea	3	88	0	3	94
3. Kultura	13	18	6	0	37
4. Turismoa	27	0	0	0	27
5. Bakea eta bizikidetzaz	0	4	0	0	4
6. Garapenerako lankidetzaz	17	23	0	0	40
7. berdintasuna	0	15	0	1	16
8. Gobernu irekia - Irekia	3	0	0	0	3
9. Administrazio Publikoa eta Justizia	0	0	0	1	1
10. Zientzia, teknologia eta berrikuntza	0	19	1	1	21
11. Energia	1	19	0	6	26
12. Nekazaritza eta arrantza	10	17	0	13	40
13. Enplegua eta Gizarte Politikak	6	7	6	3	22
14. Ogasunak eta Finantzak	2	3	1	2	8
15. Etxebizitza	3	1	3	29	36
16. Hezkuntza	38	29	1	3	71
17. Hizkuntza-politika	1	2	0	0	3
18. Segurtasuna	17	16	24	13	70
19. Osasuna	1	24	0	0	25
20. Ingurumena eta Lurralde-politika	25	9	7	12	53
21. Garraioa	19	1	0	6	26
GUZTIRA	272	407	93	101	873

Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Ekintzak nazioartekotzeko bektore desberdinetara orientatzeari dagokionez, aurreko urteekin alderatuta bektore guztiak hazi diren arren, **2. Bektorea** (“Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena”) gailentzen da eta hori eremu tematiko desberdinen orientazio sektorialaren emaitza da. Bigarrenik, **1. Bektorea** nabarmentzen da (“Euskadiren proiektzioa kanpoan”), non herrialde-irudia kohesio-elementu komun gisa erabiltzea nabarmentzen den. Horren ondoren agertzen da **4. Bektorea** (“Ezagutza erakartzea”) eta, azkenik, **3. Bektorea** (“Europako esparruarekin lerrotzea”).

32. Irudia. Ekintzen kopurua eta ehunekoa nazioartekotze-bektorearen arabera, 2017



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

2.1 Euskadiren proiektzioa kanpoan 1. Bektorearekin lotutako ekintzen analisia

1. Bektorea (“Euskadiren proiektzioa kanpoan”) izan da 2017an gailendu den bigarren bektorea (2014-2016 hirurtekoan lehenengoa izan zen) eta, zehazki, ekintza guztien % 31 bektore horri dagozkio (2014-2016 hirurtekoan % 41).

Bektore hori artikulatzen duen tresna **Basque Country marka** da, Euskadi kanpoan proiektatzeko eta hedatzeko finkatutako eta partekatutako tresna gisa.

Bektore horren bidez, beraz, maila globalean Euskadiren eragin politikoa eta ekonomikoa garatzea bilatzen da; hori erakunde eta gizarte mailako erronka bat da eta, horretarako, herrialde-marka erabilera anitzeko tresna eraginkorra da. Maila globalean aitortua izateak, gainera, esan nahi du **lurraldeak** inbertsioak, bisitariak eta turistak **erakartzeko duen indarra** areagotzen dela, baita atzerriko erosleak eta nazioarteko adimena erakartzeko indarra ere.

Horrez gain, 2017an zehar, aktiboki parte hartu da **foro eta sare** desberdinetan, besteak beste, Cabo Verde ospatutako Tokiko Ekonomiaren Garapenerako IV. Foroan, non euskal delegazioak zenbait hitzalditan parte hartu zuen, baita ekitaldiaren amaieran ere. Zentzu horretan eta Kanpo Harremanen eremuan ere bai, zenbait jarduera nabarmendu behar dira (nagusiki bisitak eta hitzaldiak), zehazki, **Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH)** lotutako sareekiko eta antolakuntzekiko aliantzak indartzera bideratutakoak; hala,



horren guztiaren xedea da Euskadi nazioarteko erreferentziazko lurralde bihurtzea arlo horretan.

Era berean, **Garapenerako Lankidetzaren** eremua funtsezko elementu bat da Euskadiren nazioarteko proiektzioan, euskal gizartearen solidaritate kolektiboaren eta erakundeen solidaritatearen transmisioaren bidez, egiturazko txirotasuna eta desberdintasunak errotik kentzeko, bereziki Erdialdeko Amerikako eta Afrikako herrialdeetan 2017an.


Bestalde, Basque Country markarekin lotutako **euskal expertise sustatzeko giltzarri diren ekitaldietan** ere parte hartu egin da, adibidez, Irekia - Gobernu Irekiaren, Ingurumen eta Lurralde-politikaren edo Garraioaren kasuetan. Horietan, aktiboki hartu da parte **nazioartean nabarmenak diren ekitaldi eta hitzaldietan**. Besteak beste, Buenos Aireseko SmartActiva (Gobernu Irekia) kongresuan eta Alemaniako The Climate Group Taldearen Batzorde Betearazlean edo COP 23n (Ingurumena) parte hartu da eta Fruit Logistica Berlin edo Transport&Logistics Munich bezalako azokak babestu dira (Garraioak).

Euskadiren lurralde-erakargarritasuna sustatzeari dagokionez, **herrialde-markarekin** lotuta beti, bereziki nabarmendu behar dira **turismoaren, nekazaritzaren eta arrantzaren eta inbertsioak erakartzearen** eremuan burututako jarduerak. Turismoaren eremuan, nabarmendu behar da nazioarteko azoketan burututako sustapena, besteak beste, Europan (Holiday World Show, Salon des Vacances, ITB, etab.), Hego Amerikan (WTF Sao Paulo, FIBEGA, FIT Argentina) edo Asian (JATA). Bestalde, nekazaritzari eta arrantzari dagokienez, nabarmendu behar da Euskadik "Basque Country" markarekin parte hartu egin duela mundu mailako ekitaldi nabarmenetan, adibidez, hauetan: London Wine Fair Azoka (Erresuma Batua); Prowein (Alemania) edo Vinisud (Frantzia). Enpresa-nazioartekotzearen eremuan, aipatu behar dira atzerriko inbertsioa erakartzera bideratutako promozio-ekintzak, zehazki, "Invest in the Basque Country" markaren bidez. Gainera, aipatu behar da Basque Country Lizitazioak Plataforma abiarazi egin dela.

Halaber, sektore honek 2017an **Basque Country markaren ezaugarriak lehenetasunezko eskualde eta herrialdeetan hedatzen** lagundu duten jarduerak hartzen ditu barne. Kanpo Harremani dagokienez eta eremu horren barruan, Euskadi bisitatu zuten Estatu Batuetako enpresen munduko politikoez, akademikoek eta ordezkariak egindako **Learning Tour** izenekoa nabarmendu behar da; horrez gain, nabarmendu behar dira Hego Amerikako eta Europako erakunde akademikoen delegazioen bisitak eta Ertzaintzak izandako bilerak Amerikako zein Europako segurtasun-kidego homologoekin.

Azkenik, kulturaren eremuan, herrialde-markaren proiektzioa oso lotuta egon da **atzerrian euskal hizkuntza eta kultura sustatzearekin**. Europako edo Amerikako lehentasunezko eremuen herrialdeak izan dira **Etxepare Institutuak** koordinatutako promozio-ekintzen eta jardueren hartzaileak: euskara-irakurletzak; katedrak munduko unibertsitateetan (8 2016-2017 bitartean) eta Euskaditik kanpo euskal arte eszenikoak, musika, arte plastikoak, literatura eta diseinua sustatzeko kanpainak.

33. Irudia. 1. sektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

2017an, 1. sektorerantz orientatutako ekintzak menperatu dituzte Kanpo Harremanen, Hezkuntzaren eta Turismoaren eremuek; izan ere, horiek sektore horrekin lotuta hedatutako jardueraren % 50 baino gehiago biltzen dute.



2.2 2. bektorearekin, Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena, lotutako ekintzen analisia

Bigarren bektorea izan da (“**Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena**”) Eusko Jaurlaritzak eta sektore publikoak 2017an zehar garatutako nazioartekotze-ekintza gehien izan dituen, zehazki, jarduera guztien % 47. Hala ere, 2014-2016 hirurtekoan, bigarren sektorerik garrantzitsuena izan zen, % 34arekin.

Bigarren bektorearen lehenengo bektorearekiko nagusitasun-biraketa hori justifikatzeko, kontuan hartu behar da Basque Country marka orokorrean eta horizontalki finkatu egin dela (lehenengo bektorea) eta horrek maila sektorialean garatutako ekintza zehatzak indartzea eragiten duela.

Ikuspegi horretatik, bektore horren inguruan egikaritutako Eusko Jaurlaritzaren kanpoko jardueraren xedea da **abaguneak antzematea, zubiak sortzea eta tresnak garatzea**. Hain zuzen ere, tresna horiek nazioartean maila sektorialean euskal egitura sozio-ekonomikoa eta enpresa-egitura osatzen duten eragileen **gaitasun produktiboak, kulturalak, komertzialak edo turistikoak nabarmentzen lagunduko dute**.

Ilido beretik, 2017an, jarduera honako hau lortzera bideratuta egon da: **erakunde-harremanen sustapena; nazioarteko proiektu eta sareetan parte-hartzea eta eragileei zuzendutako babes sektoriala erreferentziazko ekitaldietan parte hartzean**.

Erakunde-harremanak sustatzeari dagokionez, Euskadiren interes sektorialak bultzatzeko bitarteko gisa, nabarmendu behar da Kanpo Harremanen eremuan egindako lana, zehazki, **nazioarteko organismoekiko eta atzerriko gobernuekiko harremanak sustatzuz**.

Nazioarteko organismoen ikuspegitik, nabarmendu egin behar da lantalde bat sortu egin dela 2016an sinatutako **MOU Eusko Jaurlaritzak – UNESCO** memorandumaren segimendua egiteko eta **MOU Eusko Jaurlaritzak – Iberoamerikako Estatuaren Erakundea** memoranduma sinatzeko, lankidetzak indartze aldera hezkuntzarekin, zientziarekin eta kulturarekin lotutako gaietan. Nazioarteko organismoetako Kanpo Harremanetarako lan hori osatzen da, gainera, Bakearen eta Bizikidetzaren eremutik izandako lankidetzekin, besteak beste, **Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioarekin eta Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisarioarekin**. Era berean, berdintasunaren eremuan, lankidetzak ezarri dira, **Banco Interamericano de Desarrollo** erakundearekin; **Amerikako Estatuaren Erakundearekin**; **Comisión Interamericana de Mujeres** erakundearekin eta **Munduko Landagunearekin**.


Bestalde, **intereseko eskualdeetako eta herrialdeetako atzerriko gobernuekiko erakunde-harremanak** ezartzeari dagokionez, nabarmendu behar da, ikuspegi sektorial baten pean, harremanak indartu egin direla zenbait gobernuekin: Bavaria (segurtasuna; ekonomiaren garapena; azpiegiturak, etab.); Akitania Berria (enpresa-lankidetzak); Flandria (turismoa eta merkataritza) eta Gales (fiskalitatea eta hezkuntza). Horrez gain, **Lehendakariaren bidaia ofizialak areagotu dira, Kolonbiara, Vatikanora, Poloniara eta Kanadara**, non maila altuko topaketak izan zituen, adibidez, Kolonbiako presidentea den Juan Manuel Santos jaunarekin eta Vatikanoko Estatu-idazkariarekin, hau da, Pietro Parolin kardinalarekin. Gainera, **atzerriko gobernuekin Ulermen Memorandumak (MOU)** sinatzea erraztu zen, adibidez, **MOU bat Quebecekin, Euskadiren Eskualde Estrategikoen Sarera** atxikitzen dena eta Emakundek eta Mexikoko Gobernuak berdintasunaren arloan sinatutakoa. Horrez gain, Kolonbiako Hezkuntza Ministerioarekin MOU bat sinatzeko prestakuntza-lanak egin dira, zehazki, bakeari, bizikidetzari, giza eskubideei eta ingurumen-hezkuntzari dagokienez. Halaber, nabarmendu behar da **kidego diplomatikoko ordezkarietako** harremanak indartu direla (Costa Rica, Peru, Nikaragua, Ukraina, India edo Filipinak), baita Turkia, Txipre, Belgika, Italia, Erresuma Batua, Frantzia edo Holanda bezalako herrialdeetako enbaxadorekiko eta Japoniako, Argentinako edo Georgiako goi mailako karguekiko harremanak ere.

Bestalde, **interes estrategikoko sareetan eta herrialde anitzeko nazioarteko proiektu eta programetan parte hartzea** tresna indartsua eta eraginkorra da interes sektorialen proiektiorako. Ildo beretik eta aurrekoaz gain, nabarmendu behar da, 2017an, Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak ORU/Fogar bezalako sareetan hartu zutela parte, bere urteko batzarra Gasteizen ospatu zuena Eskualdeen Munduko Foruarekin batera (Kanpo Harremanen eremua); I+G+B sarean; Europako S3P Smart Grids edo ADMA Energy Harsh Environmnets Sareetan (enpresa-nazioartekotzearen eremua); Nordic Equality sarean (berdintasunaren eremua) edo NPLD sarean (hizkuntza-politikaren eremua). Programetan eta proiektuetan parte hartzeari dagokionez, 2017an zehar gobernuko sailetatik nazioarteko osagairen bat zuten proiektuei emandako bultzada nabarmendu zen, adibidez, Interreg S34Growth proiektua (enpresa-nazioartekotzearen eremua); AgriSpin (nekazaritza eta arrantza); SCIROCCO, SHIELD, TRANSPOSE, PICCOLO, TITTAN (osasuna); Erasmus Plus (Hezkuntza); Pirinioetako strategiaren definizioa eta mugaz gaindiko Espainia-Frantzia-Andorra POCTEFA programa (Kanpo Harremanak eta Ogasuna eta Finantzak), besteak beste.

Horrez gain, bektore honekin bestelako jardura batzuk daude lerrokatuta, hain zuzen ere, euskal eragileen proiektzioa sustatzeko kanpoan eta sektore anitzeko ikuspegi batetik: **foruak**,

azokak, kongresuak eta mintegiak. Adibide adierazgarri gisa, enpresa-nazioartekotzearen eremuan, nabarmendu behar da, lehenengo aldiz, Basque Country markaren berezko *stand* bat egon dela Europako azoka industrial nagusienean (Hannover Messe); SPRIren bulego komertzial berri bat ireki da Londresen; Europako eta Amerikako musikan, arte eszenikoetan eta argitalpen-sektorean espezializatutako azokak babestu dira (kulturaren eremua); IASP (Erresuma Batua), FIRST (Las Vegas) edo EuroNanoForum (Malta) bezalako topaketa sektorialetan hartu da parte Zientziaren eta Teknologiaren eremuan eta jardunaldietan eta mahai-inguruetan parte hartu da berezko *stand* batekin, adibidez, BIMEP-EVE izenekon (energiaren eremua).

34. Irudia. 2. sektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

2017an, bigarren bektorerantz orientatutako nazioartekotze-ekintzak metatu zituzten batez ere **Kanpo Harremanen, Enpresa-nazioartekotzearen, Hezkuntzaren eta Osasunaren** eremuek. Izan ere, bektore horrekin lotutako jardueraren % 60 baino gehiago hartu zuten ekintza horiek.

2.3 3. bektorearekin, Europako esparruarekin lerrokatzea, lotutako jardueren analisia

Hirugarren bektorerantz orientatutako ekintzak ezarriz, xedea da **Euskadiren eta bere eragile sozioekonomikoen parte-hartzea areagotzea Europar Batasunean**, zehazki, erabakiak hartzeko foroan, programen eta proiektuen bidez. Horren helburua da euskal papera indartzea politika europarren definizioan eta konfigurazioan eta, aldi berean, ahots gehiago izatea lortzea bere interesekoak diren kontuak erabakitzen diren plataformetan. 2017. urtean, erregistratutako nazioartekotze-ekintzen % 16, nagusiki, bektore horretarantz zeuden orientatuta.

Kontuan hartuta bektore horren inguruan kokatzen direla Euskadik Europar Batasunaren aurrean burutzen duen erakunde-ekintza koordinatzera bideratutako jarduerak, bereziki garrantzitsua da Kanpo Harremanen eremua. Izan ere, Kanpo Harremanetarako Planean definitutako 3. Helburu Estrategikoaren xedea da Europaren eraikuntzan partaideak eta erantzunkideak izatea.

Indartu egin dira **Euskadiren eta Europar Batasunaren arteko erakunde-harremanak** eta, **Lehendakariak Eskualdeen Batzordearen presidentearekin (Markku Markkula) eta Europako Batzordeko presidentearekin (Jean-Claude Juncker)** izandako bilerez gain, bestelako topaketa batzuk bultzatu ziren Eusko Jaurlaritzako goi-mailako karguen eta Europako goi-mailako agintarien artean; besteak beste, Ekonomiaren Garapenerako sailburua batasun energetikoaren arduraduna den batzordeko presidente ordearekin bildu zen. Halaber, sailburuek Europako foruetan parte hartzea erraztu zen. Adibidez, Kultura eta Hizkuntza-politikako sailburuak Diplomazia Kulturalari buruzko Europako Foruan hartu zuen parte eta Ekonomiaren Garapenerako sailburuak Eskualdeen Batzordeak antolatutako ekitaldi honetan parte hartu zuen: *“How to build Smart cities and regions: case studies from Europe”*. Horrekin batera, Segurtasunaren eremutik, Europako herrialdeetako eta eskualdeetako (bereziki Bavaria) segurtasun-kidego homologoekiko harremanak mantendu eta indartu dira.

Ikuspegi beretik, 2017an, **Europako plataforma eta proiektu desberdinetan** parte hartzea sustatu da, adibidez, hauetan: aurkako inguruetarako aplikazio energetikoetarako S3Platform;



Agro-food, Big Data eta produktuen trazabilitatearen espezializazio adimenduko plataforma edo CREADIS3 proiektua (kulturaren eremua).


Halaber, **euskal eragileen inklusioa eta sareetan parte-hartzea** bultzatu dira erkidegoaren eremuaren barruan. Izan ere, bertan, beharrezkoa da nabarmentzea Flandriarekin, Emilia-Romanarekin eta Tampererekin batera sortutako *ASBL Vanguard Initiative* izeneko ekimena. Horrez gain, Europako ERRIN, Vanguard Initiative, PLATFORMA, NOLD, RICC, EUNIC eta ERLALL sareetan aktiboki hartu da parte eta azkenaren 2017ko batzar nagusia zuzendu zuen Eusko Jaurlaritzaren Lanbide-heziketako zuzendariak.

Era berean, euskal herritarren artean Europako proiektua hedatze aldera, Eskualdeen Batzordearen eskutik, **Europar Elkarrizketen hiru saio** antolatu dira euskal herritarrekin Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Ekitaldi horietan, euskal erakundeez gain, Euskadiko eragile akademikoek, ekonomikoek eta sozialek ere parte hartu eta lagundu dute. Jorrotutako gaien oinarria izan dira enpresaren, unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak; paradiplomazia eta maila anitzeko gobernantza eta gazteen enplegua eta adimenaren kudeaketa Europako esparruan.

Hirugarren bektore horrekin bat egiten du **Europar Batasunaren barruko mugaz gaindiko lankidetzak, bereziki, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen esparruan**. Eskualde arteko lankidetzaren testuinguru horretan, 2017an, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa AECT berria sartu zen indarrean; Iparraldeko Mankomunitate Bakar berria sortu da eta zenbait ekimen babestu dira eta horien segimendua egin da, besteak beste, AQUITANIA.EUS proiektua (kulturaren eremua) edo Pirineotako baliabide naturalen eraginkortasunerako zerbitzu berritzaileen inguruko proiektua (Ingurumenaren eta Lurralde-politikaren eremua).

Azkenik, **Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteari** dagokionez, esan beharra dago hori dela 2017ko ekitaldian Europako agenda baldintzatu duten gairik garrantzitsuenetariko bat. Horren harira, **Brexitaren Segimendurako Batzordea** sortu da, gehien eragiten dien gobernuko sailen, euskal erakunde eta organismo publikoen eta eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzearekin.

35. Irudia. 3. sektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Kanpo Harremanen, Segurtasunaren eta Ingurumenaren eremuak dira 2017an zehar sektore horrekin lotutako ekintza gehien erregistratu dituztenak; zehazki, Eusko Jaurlaritzak eta sektore publikoak Europako esparruarekin lerrokatzera bideratuta burututako nazioartekotze-ekintza guztien % 75 baino gehiago bildu dituzte.

2.4 Ezagutza erakartzea 4. sektorearekin lotutako ekintzen analisia

Ezagutza erakartzera bideratutako ekintzak abiaraziz, lortu da nahi da Euskadik paper aktiboa izatea gai espezifikoeetan **abangoardiako herrialdeekin bere indarrak eta ahuleziak alderatzerakoan**, hain zuzen ere, espazio globalean erreferentziatzeko eragile gisa kokatzeko aldera.


Horrenbestez, laugarren sektore honetan sartzen dira ezagutzaren eta jardunbide egokien ekarpena gauzatzen duten ekintzak, estrategia osatzen duten eremu tematikoetan aplikagarriak direnak. 2017an, ekintzen % 10, nagusiki, sektore horretarantz zeuden orientatuta (% 13 2014-2016 hirurtekoan); hala ere, egia da batez ere beste sektore batzuetara orientatutako ekintzek Euskadiri aplikatu ahal zaizkion ezagutza eta esperientziak erakartzeko osagaia izan dezaketela.

Ikuspegi horretatik, gobernuko sailen **parte-hartzea** bultzatu egin da ekitaldi garrantzitsuetan, adibidez, Göteborgueko Europako Gailur Sozialean (Lanaren eta Justiziaren eremua) edo

eremu estrategikoko Europako hitzaldietan, non Europako beste eskualde eta hiri batzuetako arrakasta-kasuak jorratu eta aztertze aukera egon den. **Proiektuen esparruan ere bultzatu egin da ezagutzaren erakarpena**, besteak beste, POCTEFA GREEN (Nekazaritzaren eta Arrantzaren eremua), METALS eta ELVETE proiektuetan (hezkuntzaren eremua), edo birgaitze eraginkorraren eta finantziazioaren eremuko Europako politketara hurbilduz (etxebizitzaren eremua).

Bektore horri ere dagozkie **adimena Euskadirantz erakartzera** bideratutako ekintzak. Zentzu horretan, 2017an abiarazi ziren bi ekintza nabarmendu daitezke: Gazteen Itzulerarako Programa Enpleguaren eta Gizarte Politiken eremuan eta adimen ikertzailea erakartzeko programen deialdia hezkuntzaren eremuan: *Ikerbasque Research Professor, Research Associate y Research Fellow*.

36. Irudia. 4. bektoreari egindako ekarpena, 2017an garatutako ekintzen kopuruan eta ehunekoan eta eremu tematikoaren arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Etxebizitzaren, Nekazaritza eta Arrantzaren eta Segurtasunaren eremuek bektore horretarantz orientatutako ekintzen % 50 baino gehiago hartu zuten 2017an.

3 JARDUEREN ANALISIA EREMU TEMATIKOAREN ARABERA

Eusko Jaurlaritzak eta sektore publikoak burututako nazioarteko jardura areagotzeko eta sakontzeko xedearekin, estrategiak **nazioartekotzeko bektore komunak eta helburuak hedatzeko moduko zenbait eremu tematiko** aurreikusten ditu.


Ilido beretik, estrategia Eusko Jaurlaritzaren eta horren elkartutako organismo publikoen eremu bakoitzean nazioarteko jarduketak areagotzera bideratutako ekintzetan gauzatzen da. Jarraian, 2017an nazioarteko mailan eremu tematiko bakoitzean burututako ekintza nagusien analisia egiten da.

3.1 Kanpo Harremanen Eremua

Kanpo Harremanen eremua da gobernuaren nazioarteko erakunde-jardueraren arduraduna, baita sail eta erakunde arteko koordinazioarena eta lankidetzarena, zehazki, BCEn islatutako helburuak lortze aldera.

2017an, Kanpo Harremanen eremuaren jardura honakoa lortzera bideratuta egon da: **munduan Euskadiren irudia proiektatzera; interes sektorialak sustatzera; Euskadik Europako esparruan duen papera indartzera eta euskal erkidegoak kanpoaldearekin dituen loturak estutzera.**

37. Irudia. Kanpo Harremanen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Euskadik munduan duen proiektzioari erreparatuz, 2017ari dagokionez, nabarmendu behar da **antolakuntzekiko eta sareekiko loturak** indartzeko burututako lana, begirada **Basque Country 2030 Agendan** jarritz. Hori guztia Euskadi erreferentziazko lurralde bat izan dadin Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuen ezarpenarekin lotutako jardunbide egokiei dagokienez.

Oro har, **Euskadiren indarrak, herrialde gisa eta maila sektorialean**, Estatu Batuetako mundu politikoko, akademikoko eta ekonomikoko ordezkariak antolatutako **Learning Tour** horretan erakutsi ahal izan dira, baita Cabo Verden ospatutako Tokiko Ekonomiaren Garapenerako IV Foroan ere, non euskal delegazioak zenbait hitzaldi eman zituen eta ekitaldiaren amaieran parte hartu zuen. Halaber, kidego diplomatikoaren aurrean erakutsi dira indar horiek, Eusko Jaurlaritzaren Madrilgo bulegoak antolatutako saioekin, non zenbait enbaxadek eta Atzerriko Diplomatikoen Elkarteak parte hartu zuten.

Zehazki, Kanpo Harremanen eremutik, **Euskadiren irudiaren proiektzioa indartu da beste sail eta euskal eragile batzuk babestuz**, hori guztia herrialdearen nazioarteko posizioa hobetze aldera **euskal expertise** hori sustatuz atzerrian. Horren adibide adierazgarriak dira honakoak: Euskadik zuzendutako itsas-energien lantaldearen Amsterdamerako bisitaren antolakuntza (Arco Atlántico); Euskadiko GKE Koordinatzailearen Europako eta nazioarteko erakundeetarako lan-misioa edo Europako Batzordeko Lankidetzarako zuzendariarekin izandako bilera eremu horretako jardunbide egokiak aurkezteko.

Sektore anitzeko interesak sustatzeari eta bultzatzeari dagokienez, testuinguru honetan, ekintzak nazioarteko mailan erakunde-harremanak areagotzera egon dira bideratuta, bereziki **nazioarteko erakundeekin, herrialdeekin eta eskualdeekin**.

Nazioarteko antolakuntzei dagokienez, bereziki nabarmendu behar da lantalde bat eratu dela **MOU EJ-UNESCO** memoranduma hedatzeko, **MOU EJ-Iberoamerikako Estatuen Erakundea memoranduma** sinatzeko eta Gasteizen **ORU/FOGAR** antolakuntzaren Bureau eta Batzar Nagusia ospatzeko. Izan ere, horren jardunbide egokien lehiaketan Euskadiko hiru kasu hautatu ziren, zehazki, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Osasun Sailei zegozkienak.

2017an, herrialdeekiko harremanak ere indartu ziren, kidego diplomatikoak Lehendakariari egindako bisiten bidez (Costa Rica, Peru, Nikaragua, Ukraina, India, Filipinak) eta bereziki Lehendakariaren **Kolonbiarako, Vatikanorako, Poloniarako eta Kanadarako bidaiak ofizialak** antolatzearen bidez. Izan ere, lehenengo mailako topaketak izan zituen sektore anitzeko ikuspegi batetik: ekonomikoa, soziala, erakundeena, akademikoa eta kulturala; horien artean, nabarmenena **Quebecekin MOU memoranduma** sinatzea izan da.

Eskualdeekiko harremanei dagokienez, Quebecen kasuaz gain, **Bavariarekiko** lankidetzak indartu egin da, baterako adierazpenen bitartez eta akordioak estutuz polizia-zerbitzuen edo 4.0 Industriaren bezalako eremuetan. Hala, gauza bera egin da **Flandriarekin**; kasu honetan,



lankidetzak indartu egin dira turismoari, aldaketa klimatikoari, bake-proiektuei eta industria kultural eta sortzaileei dagokienez. **Galesekin** ere indartu da lankidetzak eta harremanak ezarri dira eremu hauetan: fiskalitatea, hizkuntza-politika, ingurumena, ogasuna eta azpiegiturak.

Euskadik batasunaren testuinguruan duen papera indartzeari dagokionez, nabarmendu behar da lan handia egin dela Euskadiren parte-hartzea areagotzeko **Europako proiektu, ekimen, plataforma eta sare** desberdinetan; zentzu horretan, nabarmendu behar da *ASBL Vanguard Initiative* sare berria sortu egin dela Europako beste hiru eskualdeekin batera. 2017an, Kanpo Harremanen eremuan egindako lanaren bereizgarriak hauek izan dira: **Euskadin jaiotako eta garatutako jardunbide egokien hedapena** eta euskal erakundeei eta gobernuko sailei emandako babesak, besteak beste, Basque Cybersecurity Centre zentroari edo Etxepare Institutuari, zehazki, Europako ordezkariak dauden agendetan. Europako erakundeen esparruan, azpimarratzeko modukoa da **Lehendakariak Europako Batzordeko presidentea** den Jean-Claude Junckerrekin izandako **bilera** eta **Eskualdeen Batzordeko presidentea** den Markku Markkularekin izandakoa.

Euskadiren interesak Europan defendatzeko lan hori gauzatu egin da, beste neurri batzuen artean, **Brexitaren Segimendu Batzordea** sortuz; hori 2017ko apirilean ezarri zen eta Euskadiko gobernuko sailek, erakunde publikoek eta eragile sozio-ekonomikoek hartu dute parte. Besteak beste, harremanak egon dira gobernu zentralarekin, Londreseko Euskal Etxearekin eta Lord-en Ganbarearekin.

Horrez gain, ariketa honetan, euskal gizartearen parte-hartzea sustatu egin da Europaren eraikuntzan, Eskualdeen Batzordearen babespean, **Herritarren Elkarrizketak** antolatuz unibertsitatea-gizartea-enpresa harremanari, paradiploaziari eta maila anitzeko gobernantzari eta gazteen enpleguari buruz Europako esparruan, bai Bilbon, bai Donostian eta Gasteizen, hain zuzen ere, euskal erakundeen eta mundu akademikoko, kulturaleko, ekonomikoko eta sozialeko eragileen lankidetzarekin.

Euskal erkidegoaren kanpoaldearekiko harremanak sustatzeari dagokionez, Kanpo Harremanen eremutik, **Basque Global Network** plataformaren hedapenean jarri da arreta nagusia, horren erabilera sustatzeko eta errazteko kanpainen bidez. Halaber, diasporaren babesak indartzeko **diru-laguntzak, programak eta ikerketa-bekak** bultzatu dira. Zentzu horretan, harreman ona mantendu eta sustatu egin da 25 herrialdeetako Euskal Etxeekin eta federazioekin, existitzen diren errealitate desberdinei aktiboago erantzuteko eta horietan laguntzeko. Era berean, nabarmendu egin behar da 2017an **Euskal Etxe berri bat** sartu egin

zela euskal zentroen kanpoaldeko sarean (*Saint-Pierre et Miquelon*) eta, aurrekoaz gain, prozesu parte-hartzaile bat abiarazi egin zen **Euskal Diasporaren Eguna** ezartzeko, azkenean irailaren 8an ezarri zena.


Azkenik, 2017an, Kanpo Harremanen eremutik, **hausnarketa-prozesu parte-hartzailea** zuzendu egin da, **Nazioartekotzeko 2020 Esparru Estrategia eguneratzeko**, baita XI Legegintzaldiaren hasieran Gobernu Kontseiluan onetsitako hamabost plan estrategiko horietako bat eta Kanpo Harremanen Plan berria eguneratzeko ere, eremu honetan 2018-2020 epealdian nazioarteko jardura garatzeko gida estrategiko eta operatibo gisa.

3.2 Enpresa-nazioartekotzeko Eremua

Kanpo Harremanen, Turismoaren eta Kulturaren eremuekin batera, Enpresa-nazioartekotzea estrategiaren hedapena eusten duten oinarrietako bat da, esparru-dokumentuan bertan aitortzen den bezala.

2017ko ekitaldian zehar, eremu horren barruan, jardura **Euskadiren sektore anitzeko interesen sustapenera egon da orientatuta (2B)**.

38. Irudia. Enpresa-nazioartekotzearen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Enpresa-nazioartekotzea, sektore anitzeko ikuspegi batetik, **promozio-programak** martxan jarri gauzatu egin da, besteak beste programa hauek abiaraziz: *Global Lehian* (ETEn nazioarteko sustapena); *Global Training* (gazteen nazioarteko mugikortasuna); Nazioartekotze-beken programa (adimenaren sorkuntza kanpo-merkataritzaren eremuan); *Elkartzen* programa (elkarleen eta klusterren ekimenak); *Gauzatu* programa (produkzio-ezarpenak kanpoaldean); *LANDhome* programa (enpresa-adimenaren aberriratzea) edo *Interlehian* programa eta *Basque Country Lizitazioak* Plataforma (nazioarteko mailako lizitazioetan parte hartzea).

Halaber, euskal eragileak babestu egin dira **nazioarteko mailako ekitaldi nabarmenetan** parte hartzean, adibidez, HEGANen edo Basque Health Klusterraren kasuetan. Gainera, enpresen

parte-hartzea erraztu egin da nazioarteko azoka eta kongresuetan; horien artean, nabarmentzekoa da Europako azoka industrial nagusia (Hannover Messe), non Euskadi lehenengo aldiz aurkeztu zen berezko *stand* batekin, Basque Country markaren pean. Era berean, parte-hartze sektoriala indartu egin da sare tematikoetan, adibidez, Europar Batasuneko Enterprise Europe Network sarean, Ekonomia Ministerioaren I+G+b sarean, ALINNE taldean (ikerketa eta berrikuntza energetikoak) edo Frantziako PACA eskualdearekin (Proventza-Alpeak-Kosta Urdina) batera SmartGrid taldea koordinatuz.

Barne-ikuspegitik, bereziki nabarmentzekoa da **II Basque Culinary Prize** sariaren deialdia eta horri emandako babesa, baita **Bilboko World Maritime Week** izeneko asteari dagozkionak ere. Horrez gain, nazioarteko ekintzailtza sustatu egin da *startup* enpresen BIND 4.0 azeleratzailearen lehenengo edizioaren bidez.

SPRIk enpresak laguntzen ditu kanpoaldean burutzen dituzten nazioartekotze-proiektuetan; horri dagokionez, honakoa nabarmendu behar da: **bulego berria inauguratu da Londresen;** 1223 bilera egin dira SPRIren nazioarteko taldearen eta enpresa eta erakunde desberdinen artean enpresa-egoitzan; 1379 bilera egin dira enpresa edo erakundeekin SPRIren kanpoko sarean edo bulego nagusietan; 414 azoka, kongresu eta mintegietan hartu da parte; SPRIk enpresa-izaerako 64 ekitaldi eta jardunaldi antolatu ditu eta 2769 pertsonak hartu dute parte horietan; 61 parte-hartze egin dira hizlari gisa ekitaldietan, konferentzietan, jardunaldietan edo hedabideetan; euskal enpresek 333 proiektu burutu dituzte SPRIk ordezkari den 70 herrialde horietakoren batean; SPRIk 176 enpresentzat burutu du zerbitzuren bat ordezkari den herrialdeetan eta, azkenik, 2017an, erregistratu zen euskal enpresek atzerrian 74 ezarpen komertzial, produktibo eta zerbitzukoak egin zituztela.


Osagarri gisa eta atzerriko inbertsioaren erakarpenaren mailan, nabarmendu behar da **Invest in the Basque Country** tresnaren lana; horrek promozio-ekintzak burutu ditu, besteak beste, Brasilen, baita lehentasunezko sektoreetako ekitaldi garrantzitsuetan ere, adibidez Hannover Messe azokan (industria), Bio San Diego ekitaldian (biotecnologia), edo Paris Air Show ekitaldian (sektore aeronautikoa).

Azkenik, enpresa-nazioartekotzearen eremuan, 2017ko urrian **Nazioartekotzeko Euskal Agentzia / Basque Trade Invest** sortu egin zen, Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzeko eta atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko politika kudeatuko duena. SPRIren Kanpo-sarearen bulego komertzialak agentzia berriaren menpekoak izango dira eta horrek Adimen Lehiakorreko Unitate bat sortuko du.

3.3 Kulturaren Eremua

Kulturaren eremuak berebiziko garrantzia dauka Basque Country markaren elementu bereizgarri gisa eta aurkezpen-gutun gisa gobernuaren beste eremu batzuen nazioartekotzerako.

39. Irudia. Kulturaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

2017an, eremu honetan, nazioartekotze-ekintzak bereziki orientatuta egon dira **sektore anitzeko interesen promoziora (2B), Euskadiren kanpoko proiektiora (1B) eta Europako esparruarekiko lerrokatzera (3B).**

Sektore anitzeko interesen promozioari dagokionez, bereziki nabarmendu egin behar da euskal eragileei emandako babesa **azoka profesionaletan eta musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezko industria eta literatura sustatzeko programetan**: Euskadi Sounds programa; Zineuskadi (horren bidez, Cannesen eta Berlinen lortzen da presentzia); Frankfurtko Liburuaren Azoka; foroak eta konferentziak Bruselan eta Berlinen, etab.

Euskadiren kanpoko proiektioari dagokionez, nagusiki, **Etxepare Institutuak** burututako ekintzak gailendu dira. Hain zuzen ere, irakurleek jarduera kulturalak antolatu dituzte atzerriko unibertsitateetan; **katedrak eman dira munduko unibertsitateetan** (8 2016-2017 ikasturtean); mundu osoko ikasleentzako **Etxepare Beken** programa sustatu da eta nazioarteko irakurleei zuzendutako Prestakuntza Programa ere bai.

Halaber, Europako testuinguruan (3B), batez ere **batasuneko sare eta proiektuetan (EUNIC, CREADIS3) parte hartzean** eta euskal kulturaren promozioan zentratutako ekintzak burutu dira, adibidez, European Culture Forum bezalako ekimenaren edo Aquitania.eus ekimen estrategikoaren barruan, zehazki, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearekin lankidetzan.


3.4 Turismoaren Eremua

Turismoaren eremua BCE hedatzeko oinarrietako bat dela jotzen da, Kanpo Harremanen, Kulturaren eta Enpresa-nazioartekotzearen eremuekin batera.

Tradizionalki, eremu hori aktiboa izan da Euskadiren irudia kanpoan proiektatzeko, lurraldearen balioen eta berezitasunen aurkezpen-gutun gisa eta bisitariak eta turistak erakartzeko faktore gisa.

Aurrekoaren ildotik, 2017an eremu horretan burututako ekintza guztiak daude bideratuta **Euskadiren kanpoko proiektziora (1B)**.

40. Irudia. Turismoaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Zentzu horretan, 2017an, **Basquetour agentziaren** bidez, herrialde gisa **intereseko azoka ospetsuetan** parte hartzea sustatu egin da, batez ere Europan eta Amerikan: Valkantiebeurs (Holanda), Holiday World (Irlanda), Salon des Vacances (Frantzia), Fiets en Wanderberus (Belgika), Mahana Toulouse (Frantzia), Mundo Abreu (Portugal), WTM (Brasil eta Erresuma Batua), Routes (Erresuma Batua), JATA (Japonia), ILTM (Frantzia), FIBEGA (Argentina), eta EIBTM (Espainia), besteak beste.


Paraleloki, zenbait **workshop eta promozio- eta komertzializazio-jardunaldi** egin dira Italian, Estatu Batuetan eta Alemanian. Hala, lehentasunezko eskualdeen esparruan, **MOU bat sinatu da Flandriarekin turismoaren arloan lankidetzaz bultzatzeko**, hain zuzen ere, Flandriako Turismo ministroa Donostiako Turismo Azokan parte hartu zuenean.

3.5 Bakearen eta Bizikidetzaren Eremua

Bakearen eta Bizikidetzaren eremuko jarduera **Bizikidetzaren eta Giza-eskubideen 2017-2020 Planaren** barruan sartzen da, gobernuaren helburuak ezartzen dituen eremu horretan.

2017an zehar, eremu horretan erregistratutako lau ekintzak **sektore anitzeko promoziora eta erronka globaletan laguntzera egon dira orientatuta (2B).**

41. Irudia. Bakearen eta bizikidetzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua sektorearen arabera




Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Helburu horiek honako ekintzetan gauzatu dira zehazki; **Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioarekin** ezarritako lankidetzaren; **Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Komisarioarekin** ezarritako lankidetzaren; Europako proiektuetako parte-hartzea Europar Batasunaren IV Peace Program izenekoaren esparruan eta eremu honetan Ipar Irlandarekin eta Flandriarekin batera bultzatutako ekimenak.

3.6 Garapenerako Lankidetzaren Eremua

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia elementu eragile bat da eremu honetako Euskadiren nazioarteko posiziorako. Horren nazioarteko jardueraren, 2017an, **erronka globaletan laguntzera (2B)** eta **Euskadiren kanpoko proiektiora** egon da orientatuta, bereziki eremu honetan lan egiten duten erakundeekiko eta antolakuntzekiko harremanak indartuz.

42. Irudia. Garapenerako Lankidetzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


Burututako ekintzen artean, **Erdialdeko Amerikan (Kuba) eta Afrikan (Erdialdeko Afrikako Errepublika, Kamerun, Senegal, etab.) garatutako proiektuak** nabarmendu behar dira, eremu honetan Euskadiren irudia proiektatzen laguntzen dutenak.

Halaber, nabarmentzekoak dira **ekintza humanitarioetarako, garapenerako lankidetzako proiektuentzako eta NBEren sistemako organismoentzako laguntzen deialdiak**, lankide boluntarioentzako bekak emateko. Era berean, nabarmentzekoak dira honako erakunde hauekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenak: erdialdeko Amerikako Fondo Centroamericano de Mujeres Funtsa; NBE Emakumeak El Salvadorren; Addameer Prisoner Support and Human Rights Palestinan; Hondurasko Desagertutako Atxilotuen Senideen Batzordea; Association pour la promotion de la femme senegalaise (Senegal); Fundación Wassu (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa) eta Wassu Gambia Kafo (Gambia), besteak beste.

3.7 Berdintasunaren Eremua

Emakunderen bidez, Berdintasunaren eremuan burututako ekintzak, batez ere, **sektore anitzeko interesak sustatzera eta erronka globaletan laguntzera** egon dira orientatuta (2B).

43. Irudia. Berdintasunaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


2017an, eremu honen barruan, nazioarteko erakunde-harremanak indartu egin dira eta, horien artean, hauek azpimarra daitezke: **Mexikoko Gobernuarekin berdintasunaren eremuan ezarritako Lankidetzeta-memoranduma**; **Munduko Landagunearekin ezarritako Esparru-akordioa** emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko barne-funtzionamenduan eta kanporantz orientatutako jardueran eta **NBE Emakumeekiko** lankidetzeta Europan eta Erdialdeko Asian.

Halaber, zenbait **foro eta ekitaldi garrantzitsutan** parte hartu da, besteak beste, hauetan: Nazio Batuen Erakundearen Emakumearen Izaera Juridikoari eta Sozialari buruzko Batzordearen 61. Saioan edo PNUD erakundeak eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak Turinen antolatutako Tokiko Ekonomiaren Garapenerako III. Foro Globalean. Horrez gain, harremanak ezarri dira Nordic Equality bezalako **sare tematiko nabarmenekin**.

3.8 Gobernu Irekiaren Eremua - Irekia

Gobernu Irekiaren eremua ez zegoen aurreikusita 2014an BCE abiarazi zenean; hala ere, 2015ean gehitu egin zen eremu hori eta, ordutik hona, bere nazioarteko jardueraren oinarria izan da **Euskadiren kanpoko proiektzioa (1B)**.

44. Irudia. IREKIA Gobernu Irekiaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera




Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Ilido beretik, 2017an zehar, kanpoko promozio-ekintzak sustatu egin dira gai honekin lotutako **euskal jardunbide egokiak eta expertise** hedatzeko, adibidez, Place and Innovation Ecosystems kongresuan (Erresuma Batua) parte hartu da edo Smartactivan (Argentina).

3.9 Lanaren eta Justiziaren eremua

Tradizionalki, Administrazio Publikoa eta Justiziaren eremua kanporantz orientatu da, Europan zentratuz eta jardunbide egokiak proiektatuz eta erakarriz (4B).

45. Irudia. Administrazio Publiko eta Justiziako eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua sektorearen arabera




Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Zentzu horretan, 2017an eremu honetan erregistratutako jardura bakarra Europako mailan jardunbide egokiak erakartzera orientatuta egon zen, **Goteborgeko Europako Gailur Sozialean (Suedia)** parte hartuz.

3.10 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Eremua

Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren eremuan, 2017an, nazioartekotze-ekintzak proiektu sektorialak babestera eta espezializatutako ekitaldietan parte hartzera egon dira orientatuta, zehazki, Euskadiren eta eremu honetan dituen eragileen **interes sektorialak sustatzeko eta bultzatzeko (2B)**.

46. Irudia. Teknologia eta Berrikuntzako Zentroen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua sektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


Horrela, euskal interesak defendatzeko eta sustatzeko, **nazioarteko topaketa garrantzitsuetara** joan da, besteak beste, hauetara: IASP edo ECSITE Annual Conference (Parke Teknologikoak) edo FIRST Las Vegas (Basque Cybersecurity Centre).

Halaber, nazioarteko **proiektuetako eta lantaldeetako parte-hartzea** areagotu egin da, adibidez, hauetan: 2020 Horizontea Programa Ezartzeko Batzordea – SPACE tematikoA; MANUNET III lantaldea eta M-Era.Net.

3.11 Energiaren Eremua

Energiaren eremuan, nazioarteko ekintza euskal estrategia energetikoa babesteko ibilgailua dela jotzen da, hain zuzen ere, **Energiaren Euskal Erakundearen** eta **Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren** bidez. Hala, BCEn ezarritako helburu honen pean, 2017an zehar eremu honetan erregistratutako nazioartekotze-jardueraren xede nagusia izan da **euskal interesak kanpoan sustatzea (2B)** eta, horrekin batera, **ezagutza erakartzeko ekintzak** ere burutu dira **(4B)**.

47. Irudia. Energiaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua sektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


Euskal interesak kanpoan defendatzera eta sustatzera bideratutako ekintzei dagokienez, nabarmendu behar da hitzaldietan, jardunaldietan eta mahai-inguruetan parte hartu dela Belgikan edo Frantzian; Euskadin antolatu egin zen Energy Transition Platform Plataformaren jardunaldia; erreferentziazko ekitaldietan parte hartu da berezko edo baterako *stand* batekin (BiMEP, Off-shore Wind Energy, ENERMAR) eta, azkenik, Euskadi izan da Arku Atlantikoaren Batzordearen itsas-energia berriztagarrien taldearen presidentetza izan duena.

Horrez gain, **ezagutza erakartzeko** ekintzei dagokienez, adierazi behar da Europako eremuan antolatutako eraginkortasun energetikoari, aldaketa klimatikoari, joerei eta arauketei buruzko jardunaldietan hartu dela parte.

3.12 Nekazaritza eta Arrantzaren Eremua

2017an, Nekazaritza eta Arrantzaren eremuak bere jarduera gehiena bideratu du **Euskadiren interes sektorialak sustatzera eta bultzatzera (2B)**, baita **ezagutza erakartzera (3B)** eta **Euskadi kanpoan proiektatzera (1B)** ere.

48. Irudia. Nekazaritza eta Arrantzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Euskadiren interes sektorialak nazioarteko esferan sustatze aldera, **nazioarteko proiektuetan, ekimenetan eta sareetan parte hartzea** bultzatu egin da, besteak beste, hauetan: AgriSpin proiektua; Euskampusen Sinposioa (Frantzia); EVA proiektua (Akitania Berria); LIFE Healthy Forest proiektua; Pyren-EOS; POCTEFA GREEN; EUROMONTANA sarea (Europako Mendiskualdeen Sarea); REGAL sarea (Gastro-elikadurako Eskualdeen Sarea) edo AREPO sarea (jatorri-deituren eremuan diharduen sarea).


Nolanahi ere, eremu honetan Euskadi kanpoan proiektatzeko gehien erabilitako tresna izan da **nekazaritza-elikadurako industriarentzat nazioarteko erreferentzia diren azoketan parte hartzea**, Basque Country markaren pean. Zehazki, azoka hauetan hartu da parte: SIRHA (Frantzia), London Wine Fair (Erresuma Batua), Seafood Expo Global (Belgika), Tuttofood (Italia), Vinisud (Frantzia) edo Prowein (Alemania)

Bestalde, ezagutza erakartzeari dagokionez, nabarmendu behar dira egindako **aurrera begirako bidaiak**, adibidez, Finlandiara, baso-bioekonomian duen espezializazioagatik, eta Italiara, bertako administrazioak landa-garapeneko politika berriari dagokionez egindako aldaketak ezagutze aldera.

3.13 Enplegu eta Gizarte Politiken Eremua

Enplegu eta Gizarte Politiken eremuari dagokion nazioarteko jardura bideratu da **euskal interes sektorialak nazioartean sustatzera (2B), Euskadi kanpoan proiektatzera (1B) eta Europako esparruarekin lerrokatzera (3B).**

49. Irudia. Enplegu eta Gizarte Politiken eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Euskadi kanpoan proiektatzeari dagokionez, Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programaren deialdia nabarmendu behar da, baita Frantziako zein Marokoko diplomatikoekin izandako bilerak ere, Euskadin eremu horretan burutzen diren jardunbide egokiak erakusteko.

Bestalde, **euskal interesak kanpoan** sustatze aldera burututako ekintzarik garrantzitsuenen artean, azpimarratu behar da “Destino Europa 2017” izeneko gida argitaratu dela eta IV Bilbao Youth Employment Forum antolatu egin dela.


Europako esparruan, eremu honetatik, **batasuneko politikekin lerrokatzen** ere lagundu da, Lisboako Adierazpena atxikiz, non 2022ra arte zahartzeari dagokionez bete beharreko helburuak definitzen diren. Horrez gain, Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimenaren barruan, Lagunkoitasuneko jardunbide egokiak European izeneko jardunaldiak ospatu egin ziren helburu hori lortze aldera.

Azkenik, **ezagutza erakartzeari** dagokionez, arreta berezia jarri behar da Gazteen Itzulera-programaren ezarpenean, euskal adimenaren itzulera sustatzera bideratutakoa eta Euskaditik kanpo urtebete baino gehiago daramaten 35 urte baino gutxiagoko gazteentzat zuzendutakoa.

3.14 Ogasun eta Finantzen Eremua

Ogasun eta Finantzen eremua ez zegoen aurreikusita 2014an onetsitako estrategian, geroago eremu tematiko berri gisa gehitu bazen ere.

50. Irudia. Ogasun eta Finantzen eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera




Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

2017an zehar, eremu honetako jarduera, batez ere, **euskal interesak kanpoan sustatzera** egon da bideratuta. Testuinguru horretan, zenbait tresna sortu, babestu edota garatu egin dira, adibidez, FEDER 2014-2020 edo POCTEFA 2014-2020 **programa operatiboak** (mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan) eta, horrez gain, **Pirinioetako Estrategia** eta bere orientazio estrategikoak zehaztu egin dira. Osagarri gisa, Galeseko Gobernuko ordezkariak etorri zitzaizkigun bisitan, euskal zerga ereduaren eta eredu fiskalean interesatuta baitzeuden.

3.15 Etxebizitzaren Eremua

Etxebizitzaren eremuan, BCEk aurreikusten zuen, euskal esperientziak kanpoan erakustez gain (1B), jardueraren oinarriak izango zirela **Europako politiketara hurbiltzea eta herrialdeekiko eta eskualdeekiko harremanak estutzea**, etxebizitzaren finantziazioan eta eraikuntzaren eraginkortasun energetikoaren eremuko (4B) **erreferentziatzko ereduengandik ikaste aldera**.

51. Irudia. Etxebizitzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


Ildo horri jarraiki, 2017an zehar, eremu honetan burututako ekintzak zentratuta egon dira **Europako politiketara hurbiltzean**, besteak beste, **birgaitze eraginkorrari, finantziarioari eta eraginkortasun energetikoari dagokienez**. Xede hori lortzeko erabilitako tresna nagusia izan da Europako lantaldeetan, ekimenetan eta sareetan parte hartzea, adibidez, H2020-EE-2015-2-RIA proiektuan, DYNASTEE lan-sarean, ZenN proiektuan edo ENERPAT proiektuan.

Horrez gain, parte-hartzea indartu egin da **nazioarteko ekitaldi nabarmenetan, bereziki, Europako esparruaren barruan**: Donostian ospatutako Energia Jasangarriaren Europako Astea (EUSEW17); Arkitekturaren eta Hirigintzaren Eraginkortasun Energetikoari eta Jasangarritasunari buruzko Europako 8. Kongresua; Akustikako Topaketa Iberikoa edo European Symposium on Sustainable Building Acoustics izeneko Sinposioa.

3.16 Hezkuntzaren Eremua

Hezkuntzaren eremuaren barruan, jarduerak, nagusiki, **Euskadi kanpoan proiektatzera** egon dira orientatuta (1B), baita **euskal interes sektorialak nazioartean sustatzera eta bultzatzera** ere (2B), bereziki **lanbide-heziketarekin, unibertsitateekin eta ikerketarekin** lotutako nazioartekotze-ekintzen bidez.

52. Irudia. Hezkuntzaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


Euskadi kanpoan proiektatzeari dagokionez, batetik, jarduera **atzerriko delegazioen harreran** zentratu egin da, euskal lanbide-heziketako eredia ezagutzera etorri direnak, batez ere, Europatik (Alemania, Danimarka, Grezia, Finlandia, etab.) eta Amerikatik (Argentina, Uruguai, Mexiko, Txile, etab.). Bestetik, jarduera **nazioarteko ekimenetan, sareetan eta proiektuetan parte-hartzean** egon da zentratuta, besteak beste, TKNIKAREN bidez sustatutako horietan, ELVETE proiektuan, METALS proiektuan eta WFCP nazioarteko sarean. Bereziki nabarmendu behar da TKNIKA **UNEVOC zentro** (UNESCOren lanbide-heziketako zentroen sarea) izendatu dela eta Espainiako Estatuan aitopren hori lortu duen lehenengo erakundea izan dela.

Euskal interes sektorialak kanpoan eta eremu honen barruan sustatzeari dagokionez, nabarmendu behar da Erasmus Plus bezalako **proiektuak eta programak sustatu** direla eta Basque Visiting Fellow programa abiarazi egin dela. Horrez gain, zenbait jardunaldi eta bilera antolatu dira: ESS Council Strategy Meeting bilera Polonian eta Danimarkan eta European Co-operation beyond Brexit topaketa Danimarkan.

3.17 Hizkuntza-politikaren Eremua

BCEk ezartzen duen bezala, eremu honen xede nagusia da euskara nazioartekotzea. Beraz, erregistratutako hiru nazioartekotze-ekintza horietatik, biren xedea izan da **euskal interesak kanpoan sustatzea eta bultzatzea**.

53. Irudia. Hizkuntza-politikaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua sektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Ildo honetan, aktiboki hartu da parte **NPLD sarean** (Network to Promote Linguistic Diversity) eta mundu osoko **euskal zentroentzako diru-laguntzak** deitu dira, zehazki, euskara-ikastaroak emate aldera.


Eremu honetan, kanpoko jarduera hertsiki lotuta dago eta Kulturaren eremuak osatzen du, bereziki, Etxepare Institutuak euskal hizkuntzaren eta kulturaren hedatzaile gisa egiten duen lanaren bidez.

3.18 Segurtasunaren Eremua

BCEn aurreikusitakoaren arabera, Segurtasunaren eremuan, **beste segurtasun-agentzia eta erakunde batzuekin alde biko harreman zuzenak** ezartzearen aldeko apustua egiten da, informazioa partekatzeko. Halaber, gai honen inguruko nazioarteko foroetan parte hartzearen alde egiten da, bereziki Europako eremuan.

Segurtasunaren eremuko nazioarteko jarduera, batez ere, Europako esparruarekin lerrokatzera egon da orientatuta, Euskadi kanpoan proiektatzera eta, azkenik, Euskadiren sektore anitzeko interesak defendatzera.

54. Irudia. Segurtasunaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua sektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Europako ingurunean, nabarmentzekoak dira ekintza hauek: Alemanian ospatutako Europako Poliziaren XX. Kongresuan parte hartzea edo lehentasunezko eskualdeekiko harremanen sustapena, bereziki 1995eko Lankidetzaren hitzarmena berrituz, **Bavariako Barne Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren arteko Lankidetzaren protokolo berri bat** sinatzean.

Euskadiren kanpoko proiektioari dagokionez, **zenbait bilera eta topaketa** antolatu dira beste herrialde batzuetako **segurtasun-kidegoekin**, besteak beste, PMNYrekin (Estatu Batuak), Mexikoko edo Dominikar Errepublikako segurtasun-arduradunekin edo **Bavariako Barne Ministerioarekin**, zeinarekin baterako lankidetzaren aukerak aztertu diren.


Interes sektorialak sustatzeari eta bultzatzeari dagokienez, **ekitaldietara eta foroetara** joan da, maila sektorialean nazioarteko mailan kokatze aldera. Gainera, topaketak antolatu dira Bilboko Kidego Kontsularrarekin eta enbaxada desberdinekin.

Ezagutza erakartzeari dagokionez, nabarmentzekoak dira Hego Korea, Japonia eta Belgika bezalako herrialdeetako segurtasun-kidegoekin izandako bilerak; Baden Württembergeko Polizia-akademiarekin izandako harremanak eta DHPOL-era egindako bisita (Alemaniako Poliziaren Goi-aginteen Unibertsitatea).

3.19 Osasunaren Eremua

Osasunaren eremuan, 2017an zehar nazioartekotzeari dagokionez burututako ekintzen xede nagusia izan da **interes sektorialak sustatzea eta bultzatzea (2B)**.

55. Irudia. Osasunaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera




Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Ildo beretik, maila sektorialean, euskal posizioaren sustapena gauzatu egin da **eskualde estrategikoekiko lankidetzan oinarritutako nazioarteko proiektu nabarmenak** garatuz. Horri dagokionez, zenbait ekimen burutu dira Eskoziako erakundeekin; besteak beste, herrialde horrekin sinatutako Ulermen Memorandumari eman zaio jarraipena (SCIROCCO, SHIELD, TRANSPOSE, PICCOLO, MOVE+, TITTAN, etab.) eta proiektuak garatu dira Akitaniako erakundeekin (REF BIO II, Chronicity Valley, Silver Economy, HELINET, etab.) eta Ipar Irlandakoekin (MIDAS, EUROLINKCAT, MAGIC, etab.).

3.20 Ingurumen eta Lurralde-politikaren Eremua

BCEk ezartzen duenaren arabera, ingurumenaren eremuan, nazioartekotzea erakundeen ikuspegitik jorratzen da (ekonomia berdearen kontzeptuaren garapena), baita enpresen eta finantziazioaren ikuspegitik ere eta lurralde-politikaren eremutik. Zentzu horretan, 2017an, eremu honetan, ekintzen xede nagusia izan da **Euskadi kanpoan proiektatzea** (1B); horrez gain, **nazioarteko mailan jardunbide egokiak erakartzera** bideratutako ekintzak buru dira (4B).

56. Irudia. Ingurumen eta Lurralde-politikaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


Euskadiren irudia ingurumenaren eta lurralde-politikaren eremuan erreferentzia gisa proiektatzeko xede hori lortze aldera, eremu horretako jarduera **nazioarteko sare eta proiektuetan parte hartzearen** inguruan burutu da. Horien artean, nabarmentzekoa da ekitaldi

hauetan parte hartu izana: The Climate Group Taldearen Batzorde Betearazlean; Interreg BID-REX proiektuan; Ecolabel Batzordean; PHYTOSUDOE proiektuan; Common Forum on Contaminated Sites in Europe Foroan (Austria); Bogota Ibaiaren Arro Hidografikoaren Kontseilu Estrategikoan; New Yorkeko Climate Week Astean; ICLEIren Procura+ sarean; COP23n. Hala, bereziki nabarmendu behar da Transformative Cities Award sariaren antolakuntza; zehazki, sari horrek Europako gizartea erkidego kontziente eta arduratsua bihurtzeko esparru-dokumentua den **Euskal Adierazpenean**, ezarritakoari heltzen dioten ekintzak aitortzen ditu.

3.21 Garraioaren eremua

Garraioaren eremuan, nagusiki, Euskadi kanpoan proiektatzea lortu nahi da, maila globalean euskal sektore logistikoaren eta garraioaren sektorearen interesak sustatzeko tresna gisa. Ildo horretatik, 2017an erregistratutako nazioartekotze-ekintzen fokua izan da **eremu horretan Euskadi proiektatzea nazioarteko testuinguruan (1B)**.

57. Irudia. Garraioaren eremuko nazioartekotze-ekintzen kopurua bektorearen arabera



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta


Basque Country marka kanpoan hedatzeko gehien erabilitako tresna, garraioari eta logistikari dagokienez, nazioarteko **erreferentzia diren azoka eta ekitaldietan parte hartzea** izan da: Fruit Logistica Berlin, Multimodal Birmingham, Breakbulk Amberes, Transport&Logistics Munich, etab. Gainera, garraioarekin, logistikarekin eta eskualde arteko konexioarekin lotutako ekimenetan eta lankidetzaproiektuetan hartu da parte, adibidez, CEF-BLENDING CALL programan, garraioko Europaz gaindiko sareak garatzeko, edo Korridore Atlantikoaren Hirinodoen Lantaldean ere bai.

4 JARDUEREN ANALISIA EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA

BCEn, nazioartekotzerako **eremu geografiko estrategikotzat** hartzen dira euskal sektore anitzeko interesen parte handi bat biltzen duten herrialdeak eta eskualdeak eta, hortaz, **Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak kanpoan aktiboki abiarazten dituen ekimen gehienak kontzentratzen dituztenak**. Zentzu horretan, **lehenetsitako eskualdeen eta herrialdeen** (nazioartekotze-efortzu gehienak kontzentratzen dituztenak) eta **lehentasunezko eskualde eta herrialdeen** (interes estrategikoko lurraldeak izan arren, arreta gehiago kontzentratzen dute oro har) arteko bereizketa ezartzen da.

Makro mailako jarduketa-eremu geografikoei dagokienez, 2017an, **Europa nabarmendu zen lehentasun nagusiko eremu gisa**; izan ere, Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak erregistratutako nazioartekotze-ekintzen % 70 hartu zituen; jarraian, Amerika (% 15), Asia (% 2) eta Afrika (% 1) doaz. Bestalde, ekintzen % 12 ikuspegi global batetik burutu ziren, hau da, zehazki eremu geografiko batera bideratu gabe edo, aitzitik, eremu geografiko anitzeko herrialdeek parte hartutako ekintzak izan ziren.

58. Irudia. Burututako ekintzen ehunekoa jarduketa-eremu geografikoaren arabera, 2017³




Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

Jorratutako herrialdeei dagokienez, European egindako lana nabarmendu behar da, nagusiki Europar Batasunaren eremuan eta, zehazki, Frantzia, Alemanian eta Erresuma Batuan, nazioartekotze-ekintzetan inplikaturako lurralde nagusien artean. Halaber, Amerikaren kasua aipatu beharra dago, non esfortzuak Estatu Batuetan, Mexikon, Kolonbian, Argentinan edo Txilen zentratu diren.

³ Grafiko hau egiteko, kontuan hartu da nazioartekotze-ekintza batzuek eremu batean baino gehiagotan eragiten dutela eta zenbaketa horren arabera egin da.

59. Irudia. Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze-ekintzen kopurua herrialdeen arabera, 2017⁴



⁴ Irudi hau egiteko, zehazki herrialde batera edo batzuetara zuzendutako edo bideratutako jarduketak soilik hartu dira kontuan eta azterketatik kanpo geratu dira jarduketa orokorrak edo geografia anitzeko ikuspegia zutenak. Bestalde, jarduketak zuzenduta zeuden lurraldearen arabera zenbatu dira, egikaritu diren leku fisikoa gorabehera.

4.1 Jarduerak lehentasunezko eta lehenetsitako herrialdeetan

BCEn aurreikusitako **lehentasunezko herrialdeei** dagokienez, jarduera herrialde hauetan zentratu da: Frantzia; Alemania; Erresuma Batua; herrialde nordikoak; Mexiko; Kolonbia eta Estatu Batuak, nagusiki.

Europan, nazioartekotze-jardueraren protagonistak, funtsean, **Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua** izan dira, hau da, eremu tematiko anitzetik jarduera handia kontzentratzen duten herrialdeak. Izan ere, Euskadik horiekiko harremanak ditu oso eremu desberdinetan: erakundeena, ekonomikoa, zientifikoa, kulturala edo turistikoa. Halaber, nabarmentzekoak dira **herrialde nordikoak** (Danimarka, Suedia, Finlandia), non, teknologiaren, hezkuntzaren edo gizartearen eremuetan, besteak beste, jardunbide egokiak erakartzeko eta partekatzeke esfortzuak egiten diren.

Frantzian, garatutako nazioarteko jardueraren ardatza izan da mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzak, bereziki, Akitania Berriarekin, baterako proiektu eta lantaldeen koordinazioan, SmartGrids bezala PACA eskualdearekin (Proventza-Alpeak-Kosta Urdina), baita herrialdearen promozioan eta ekitaldi nabarmenetan euskal eragileei eskaintako laguntzan ere, adibidez, Le Bourget azokan (aeronautika) edo SIRHA eta VINISUD (nekazaritza-elikadura).

Ildo beretik, Alemanian ere sustatu egin da Euskadiren irudia herrialde gisa, baita bertako eragileena ere, zehazki, azoka hauetan: Hannover (industria), Fruitlogística (nekazaritza-elikadura eta garraioa), Prowein (nekazaritza-elikadura), ITB (turismoa), ENN Bremen (aeronautika) edo Formnext (fabrikazio gehiagarria). Paraleloki, parte-hartzea sustatu da AGRISPIN edo LIFE Healthy Forest bezalako baterako proiektuetan eta erakunde-harremanak indartu egin dira alderantzizko bisitekin eta zuzenekin ere bai: adibidez, TKNIKAN, hau da, hezkuntzaren eremuan, Alemaniako delegazio bat hartu zen eta, segurtasunaren eremuan, bisita bat egin zen DHPOLera (Alemaniako Poliziaren Goi-aginteen Unibertsitatea).

Halaber, **Erresuma Batuan**, esfortzuak Euskadi ekitaldi nabarmenetan promozionatzera egon dira zuzenduta, adibidez, Multimodal Birmingham (garraioak) edo London Wine Fair (nekazaritza-elikadura) ekitaldietan. Herrialde horretan euskal eragileak babesteari dagokionez, nabarmendu behar da SPRIren bulego komertzial berria inauguratu egin dela Londresen. Hori dela-eta, erakunde-bidaia egin zen eta Merkataritza eta Inbertsioen ministro britainiarrarekin antolatu zen bilera bat, baita Brexitaren inguruko jardunaldi bat ere euskal enprekin. Zentzu horretan, azpimarratu behar da, Kanpo Harremanen eremutik, Brexitaren Segimendu Batzordea sortu dela, ukitutako gobernuko sailak eta eragile sozio-ekonomikoak

biltzen dituen. Bestalde, alde biko harremanen sustapenaren eremuan, adierazi behar da gobernu britainiarreko Garraio-bideen Saileko arduradunek Euskadi bisitatu zutela, Y euskaldunaren garapenean eta horren hiri-integrazioan interesatuta baitzeuden.

Herrialde nordikoetan, jarduera baterako proiektuetan parte hartzean oinarritu egin da, adibidez, Suediak eta Finlandiak parte hartzen duten European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing EIP-AHA proiektuan edo ESS Project izeneko proiektuan, hezkuntzaren eremuaren barruan. Halaber, harremanak areagotu egin dira herrialde nordikoek zuzendutako edo parte hartutako nazioarteko sareekin, besteak beste, Nordic Equality sarearekin (berdintasunaren eremuan). Horrez gain, bisitak egin dira bi noranzkoetan, hau da, bidaia bat egin zen Finlandiara basoko bioekonomiaren promozioaren esparruan (nekazaritzaren eta arrantzaren eremua) eta Finlandia zein Danimarkako delegazioei egin zitzaien harrera TKNIKAN.

Amerikan, BCEn ezarritakoaren ildotik, jarduera Amerika Latinoko herrialdeetan eta Estatu Batuetan zentratu egin da.

Amerika Latinoaren kasuan, lehentasunezko herrialdeen artean, **Mexiko eta Kolonbiaren** kasuak nabarmendu behar dira eta, neurri txikiagoan, **Brasil eta Peru**. Kolonbiarekin bereziki, 2017an, alde biko harremanak indartu dira, Lehendakariak herrialde horretara egindako bidaiaren ondorioz. Izan ere, bidaia horretan, mailarik altueneko erakunde-topaketak antolatuta ziren, presidentearekin, presidente ordearekin, hezkuntza ministroarekin eta Bakerako Goi Komisarioarekin. Era berean, erakunde-harremanak sortu dira Brasil edo Peruko kidego diplomatikoarekin eta Lankidetzeta-memorandum bat sinatu egin da Mexikoko Gobernuarekin gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren inguruan. Amerikan ere bai, Basque Country marka sustatu egin da sektore anitzeko ikuspegi batetik eta hauek dira horren adierazleak: Euskadiko elikadura-produktuak Mexikon promozionatzeko programaren egitaritza; herrialde berean egindako Basque Culinary World Prize sareiaren aurkezpena; Brasilen burututako Invest in the Basque Country ekimenaren promozioa edo ekitaldi nabarmenetan parte hartzea, adibidez, hauetan: WTM Sao Paulo (Turismoa) edo Acodalen Nazioarteko Kongresua Kolonbian (Ingurumena).

Estatu Batuekin, Euskadiren proiektzio-lana eta ezagutzaren partekatzea indartu egin dira, eremu politikoko, akademikoko eta ekonomikoko ordezkariarekin antolatutako *Learning Tour* hori bezalako ekintzen bidez (Kanpo Harremanen eremua) edo Minnesotan gobernuari eta prestakuntza-zentroei egindako bisita (Hezkuntzaren eremua). Euskadiren presentzia ere

sustatu egin da herrialde horretan maila sektorialean, FIRST Las Vegas (ziber segurtasuna), BIO San Diego (bioteknologia), edo Breakbulk America (garraioak) bezalako ekitaldietan.

Asiaren kasuan, lehentasunezko herrialdeei zuzendutako eragin txikiagoa zenbatu da, SPRIk enpresa-nazioartekotzearen eremuan egiten duen lanetik haratago, zehazki, Hego Koreako, Indiako, Singapurreko edo Txinako merkatuetan diharduten enpresen babesarekin. Erakundeen mailan, azpimarratu behar da Indiako enbaxadoreak Lehendakaria bisitatu zuela (Kanpo Harremanen eremua); halaber, bilerak antolatu ziren Hego Koreako poliziaren aginteekin (Segurtasunaren eremua) eta Indiako Phuneko Unibertsitateko delegazio bat etorri zen bisitan (Hezkuntzaren eremua).

Azkenik eta Afrikako lehentasunezko herrialdeari dagokionez, eragina oso mugatu izan da; nabarmendu behar da Gei-Heis Collective Hego Afrikako erakundearekin sinatutako hitzarmena, hain zuzen ere, Garapenerako Lankidetzaren eremuan.

Bestalde, 2014an onetsitako BCEk **lehenetasunezko herrialde** gisa aurreikusten zituen honako hauek: Holanda, Irlanda, Errusia eta Turkia Europan; Kanada, Argentina eta Txile Amerikan; Japonia, Malasia, Indonesia eta Vietnam Asian eta Golko Persikoko herrialdeak eta Israel Ekialde Hurbilean.

Herrialde horietako jarduerari erreparatuz, bereziki nabarmendu behar da **Lehendakariak Kanadara egindako bidaia ofiziala**; horretan, lan-topaketak antolatu ziren eremu guztietan: ekonomikoa, soziala, erakundeena, akademikoa eta kulturala. Horri dagokionez, garrantzirik handieneko egintza izan zen Quebecekin MOU Ulermen Memoranduma sinatzea, lurralde hori Euskadiren Bazkide Estrategikoen Sareko kide bihurtzea dakarrelako.

Horrekin batera, erakunde-harremanak sustatu egin dira lehentasunezko hartutako herrialde horietako batzuekin, **delegazioen harreraren bidez eta topaketak antolatuz kidego diplomatikoarekin eta atzerriko erakundeekin** (Argentina, Turkia, Holanda, Japonia, etab.). Gainera, interes sektorialak sustatu dira **sareetan, ekimenetan eta ekitaldietan parte hartuz**, adibidez, Vakantiebeurs azokan (turismoaren eremua, Holandan) edo JATA azokan (turismoaren eremua, Japonian).

4.2 Jarduerak lehentasunezko eskualdeetan

2014ko BCEk jardueren lehentasunezko garapena aurreikusten du Europako Akitania Berria, Eskozia, Bavaria eta Flandria eskualdeetan. Horrez gain, beste hauek ezartzen ditu lehentasunezko eskualde gisa: Querétaro Mexikon eta Jiangsu Txinan. Hala eta guztiz ere, azkenengo urteetan, Cundinamarca, Quebec edo Gales eskualdeekiko interesa piztu egin da sektore anitzeko ikuspegi batetik eta, izan ere, horiek BCEren 2018-2020 epealdirako eguneraketan aurreikusitako lehentasunezko eskualdeen barruan sartu dira.

Akitania Berriaren kasuan, 2017an, azpimarragarriena izan da indarrean sartu egin dela Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa AECT Berria. Hala, testuinguru horretan baterako proiektuen deialdiak egin dira kulturari, kirolari, gazteriarri eta Euroeskualdeko herritarrei dagokienez, baita lehiakortasunari eta berrikuntzari dagokienez ere. Euroeskualdearen esparruan eta erakundeen mailan, zenbait topaketa egon dira. Adibidez, Lehendakaria Nafarroako eta Akitania Berriko presidentekin bildu zen, Gurs kontzentrazio-esparruan egindako omenaldia dela-eta. Horrez gain, Ekonomiaren Garapenerako sailburua Bordelen bildu egin zen Akitania Berriko presidente ordearekin. Era berean, maila sektorialean lankidetzak sustatu egin da, adibidez, bio-osasuneko enpresen topaketen kasuan, Health Cluster izeneko Klusterrarekin lankidetzan, EVA “Euskadi Vin Aquitaine” proiektuaren esparruan eta Nekazaritzaren eta Arrantzaren eremuaren barruan, www.aquitaine.eus ekimena martxan jarriz Kulturaren eremuan edo Osasunaren eremuan burututako proiektuen bidez (REF BIO II, Chronicity Valley, Silver Economy, HELINET, etab.)

Bavariari dagokionez eta maila sektorialean, nabarmendu behar da Segurtasun sailburuak eta Barneko, Eraikuntzako eta Garraiobideetako ministroak akordio bat sinatu dutela polizia-lankidetzaren eremuan. Horrez gain, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren harremanak indartu egin dira 4.0 industriaren arloan. Izan ere, sail hori Munichra joan zen, digitalizazioaren eremuan sakontzeko eta Eusko Jaurlaritzak hiri horretan duen bulego komertzialaren leku-aldaketan eta handitzeko obretan egoteko. Gainera, *Land* horrekiko alde biko harremanak areagotu egin ziren Bavariako Parlamentuaren delegazio batek Euskadira egindako bisitaren ostean, zehazki, Konstituzioaren, Zuzenbidearen eta Parlamentu-kontuen Batzordearen esparruan.

Eskoziari dagokionean, bereziki azpimarragarriak dira Osasunaren eremuan burututako ekimenak, eremu honetan Eskoziako agintaritzekin sinatutako MOU Ulermen Memorandumaren Ekintza Planaren garapen gisa. Horrela, lankidetzak-lan handia burutu egin

da zenbait proiekturen bidez, besteak beste: SCIROCCO, SHIELD, TRANSPOSE, PICCOLO, MOVE+ edo TITTAN.

Bestalde, **Flandriarekin**, alde biko harremanak areagotu egin dira zenbait eremu tematikotan; horien artean, nabarmentzekoa da Turismoarena, non MOU berri bat sinatu zen, jadanik Aldaketa Klimatikoaren, Bake-proiektuen eta Industria Kultural eta Sortzaileen eremuetan ezarritakoak osatuko dituen.

2017an, **Galeseko** gobernuko delegazio batek azterlan-bisita bat egin zuen Euskadira, zehazki, euskal esperientzia fiskalean interesatuta zegoelako. Hala ere, egiaztatu egin da badagoela interesa bestelako lankidetzara ere ezartzeko beste eremu batzuetan, adibidez, azpiegituren, hizkuntza-politikaren, osasunaren eta ingurumenaren eremuetan, zalantzarik gabe etorkizunean ekintza zehatzetan gauzatuko dena.

Azkenik, bereziki nabarmentzekoa da Cundinamarcan eta, batez ere, Quebecen garatutako jarduera, Lehendakariak Kolonbiara eta Kanadara egindako bisiten ondorioz.

Cundinamarcaren kasuan, lehendakariak ulermen memorandum bat sinatu zuen, besteak beste, lehiakortasunaren, industriaren, berrikuntzaren eta ingurumenaren inguruan, eskualde horretan daudelako Kolonbian ezarritako euskal enpresa gehienak.

Quebeceri dagokionez, lehendakariaren bisitaren egintzarik garrantzitsuen izan zen MOU bat sinatu zela Euskadirekin, Kanadako probintzia hori Bazkide Estrategikoen Sarean integratuz. Gainera, lehendakariaren bisita horren ondorioz, maila altuko zenbait topaketa egon ziren eremu anitzetan: harrera bat Asanblea Nazionalean eta lehendakariak Lavaleko Unibertsitatean eta Montrealeko Nazioarteko Harremanen Kontseiluan emandako hitzaldiak. Bestalde, kulturaren eremuan, nabarmendu behar da MOU bat sinatu zela *Parks Canadarekin*. Horrela, ondare kultural komuna indartzeko konpromisoa islatu zen, zeinaren adierazle nagusia den Redbay-ko euskal baleazale-kokalekua. Horrez gain, enpresa-nazioartekotzearen eremuan garrantzi handiko bilerak egin ziren, besteak beste, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua Quebecoko Lehenengo Ministra ordearekin bildu zen, Zientzia, Berrikuntza eta Estrategia Digitalaren arduraduna dena.



5 ONDORIOAK

Jarraian, 2014an onetsitako BCEn oinarrituz, ondorio nagusiak zehazten dira, Eusko Jaurlaritzak eta horren sektore publikoak 2017an zehar burututako nazioartekotze-jardueraren orientazioari eta segimenduari dagokienez, baita horren ardatz geografikoari eta tematikoari dagokienez ere.


5.1 Jardueraren orientazioa eta segimendua

- Oro har, Eusko Jaurlaritzaren Sailen eta elkartutako organismo publikoen **nazioartekotze-jarduera areagotu egin da**: 2017an 873 ekintza zenbatu dira, 2016ko 654 ekintzekin alderatuta. Hala, 2014an erregistratutako 33 jarduerak biziki areagotu dira, bikoitza baino gehiago (goranzko joerarekin: 503 2015ean eta 654 2016an).
- Lehenengo aldiz, **estrategian aurreikusitako eremu tematiko guztien nazioartekotze-datuak ematen dira eta horien kalitatea eta zehaztapena handitu dira**. Horrek erakusten du BCE estrategiak onespene- eta barneratze-maila ona izan duela maila anitzeko ikuspegi batetik (sailak, sailburuordetzak, zuzendaritzak, organismoak eta agentzia publikoak, etab.), baita sektore anitzeko ikuspegi batetik ere.
- **2017an, 2. bektoreak (“Interes sektorialen sustapena eta bultzada eta erronka globalak ebazteko ekarpena”) eta 1. bektoreak (“Euskadiren proiektzioa kanpoan”) bildu dituzte Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze-ekintzak**. Hortaz, Euskadik atzerrian herrialde gisa kokatzeko duen potentziala finkatzen du, bai sektore anitzeko ikuspegi batetik (kulturala, industrial, hezkuntzako, turistikoa, etab.), bai ikuspegi global batetik, zehazki, Euskadi Basque Country marka bultzatuz.

5.2 Ardatz tematikoa

- **Kanpo Harremanen, Enpresa-nazioartekotzearen eta Hezkuntzaren** eremu tematikoak dira 2017an zehar nazioarteko osagaien bat zuten jarduera eta proiektu gehien hedatu zituztenak, hurrengo irudian antzeman daitekeen bezala.

60. Irudia. Ekintzen kopurua eta ehunekoa eremu tematikoaren arabera, 2017



Iturria: Berezko lanketa Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildutako datuetatik abiatuta

- BCEren hedapen estrategikorako hiru tresna nagusiak dira hauek: **alde biko zein anitzeko erakunde-harremanen sustapena; nazioarteko ekimen, proiektu eta sareetako presentzia eta eragileentzako babesa azoka eta ekitaldi tematikoetan.**
- Sail eta erakunde arteko koordinaziorako duen paper horretan, **Kanpo Harremanen** eremuak estrategia egikaritzearen eta horren segimendua egitearen bermatzaile gisa jarduten du, kanpoan erakunde-harremanak babestuz eremu anitzeko ikuspegi batetik, zehazki, atzerrian Euskadiren sektore anitzeko interesak sustatuz eta maila globalean bere posizioa eta Europako proiektuan duen papera hobetuz.

- **Enpresa-nazioartekotzearen** eremuan garatutako lana da BCEren oinarrietako bat; izan ere, horrek Euskadik maila sektorialean herrialde gisa duen posizioa hobetzen du, baita bertako enpresena ere, nazioartekotze-proiektuak babestuz (esportazioa, inbertsioa) eta nazioartean nabarmenak diren azoka eta ekitaldietan parte hartuz.
- **Euskal kulturaren eta hizkuntzaren** nazioartekotzeak estrategiaren oinarri diren eremu handi horietako bat izaten jarraitzen du. Zentzu horretan, nabarmendu egin behar da Etxepare Institutuak burututako lana nazioarteko posizioaren eta proiektzioaren bermatzaile gisa, zehazki, tresna anitzen bidez: katedrak, beka, diru-laguntzak, akordioak, etab.
- **Turismoaren** eremuan, Basquetour-ek burututako lana azpimarratu behar da, nazioarteko ekitaldi eta hitzordu nagusietan sektoreko euskal eragileak babestean, betiere Basque Country markaren pean.

5.3 Ardatz geografikoa

- **Europa lehentasunezko eremu nagusi gisa finkatzen da**, kontinente amerikanoa horren atzetik dagoelarik. Jarduera-eragina txikiagoa da Asian eta Afrikan; beraz, esfortzuak epe ertain-luzera begira egin litezke.
- **Erakundeen kanpoko jardueraz gain**, nabarmendu egin behar da **Eusko Jaurlaritzari lotutako organismoek** duten eragina, besteak beste, SPRI taldeak duena Enpresa-nazioartekotzearen eremuan edo Etxepare Institutuak duen eragina kulturaren eta hizkuntza-politikaren eremuan, euskal interes sektorialen kanpoko defentsan eta nazioartean Basque Country marka hedatzean eta sustatzean.
- **Lehentasunezko herrialdeen artean**, Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan egindako lana azpimarratu behar da, bereziki, Euskadiren proiektioari eta bere interes sektorialen sustapenari dagokienez.
- **Eskualde estrategikoekiko alde biko harremanen** kasuan, bereziki nabarmentzekoak dira Akitania Berriaren, Bavariaren eta Flandriaren kasuak, ildo horretako jarduera bildu dutenak eta Euskadirentzat lehenengo mailako bazkide gisa finkatu direnak. Halaber, bereziki azpimarragarria da Quebec sartu dela **Euskadiko Bazkide Estrategikoen Sarean**, zehazki, 2017an MOU memorandum bat sinatzearen ondorioz.

Hala eta guztiz ere, jarduera txikiagoa izan da sareko beste kide batzuegan, baina gaur egun ekimenaren parte ez diren lurralde berri batzuekiko harremanak indartu dira, besteak beste, Gales, Ipar Irlanda eta Minnesotarekin.

5.4 Azken gogoetak

2017an, ikusi dugu **BCE finkatu egin dela, gobernu-eremu guztietarako tresna integral eta horizontal gisa Euskadiren nazioarteko jardueraren orientazio, kudeaketa eta segimendurako**. Izan ere, lehenengo aldiz, nazioartekotze-datuak lortu egin dira aurreikusitako hogeita bat eremu horietan; horrela, BCE finkatu egin da Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak partekatutako eta parte hartutako tresna gisa, Euskadik herrialde gisa duen posizioa hobetzen laguntzen duena, baita maila sektorialeko eragile sozioekonomikoen posizioa hobetzen ere, mundu osoan eta, bereziki, Europan.

Bestalde, **erregistratutako jardueren kopuruak goranzko joera argia erakusten du** eta horrek islatzen du nazioartekotzea, finkatutako jardunbidea ez ezik, gobernu-eremu guztietatik indartutako jardunbide bat ere badela. Horrez gain, islatzen du BCE barneratu egin dela nazioarteko jardueraren plangintzarako eta segimendurako tresna gisa.

Tresna hori, aplikazioari eta helburuei dagokienez eraginkorra izan arren, eguneratu egin behar zen, nazioarteko egoera berrira eta euskal erakunde eta eragile desberdinen premia berrietara egokitze aldera.

Horregatik, hain zuzen ere, 2017an zehar, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak hausnarketa estrategikoko prozesu bat abian jartzera eta zuzentzera bideratu ditu esfortzuak eta baliabideak eta, horren ondorioz, **estrategia eguneratu** egin da. Zehazki, estrategiak 2014an onetsitako ikuspegiaren funtsa mantentzen du baina egungo testuingurura eta beharretara egokitzen da eta 2018tik aurrera jarriko da praktikan.

Horrela, ikuspegi estrategikoa **munduko testuinguru geopolitiko berrira** egokitu da, baita dokumentu hauetan ezarritakora ere: **XI Legegintzaldiaren Gobernu Programa; Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda; 2020 Europa Agenda eta Euskadiko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentziatzko Esparrua**. Paraleloki, **prozesu parte-hartzaile** zabala abiarazi egin da eta horrek, estrategia eratze prozesuan, euskal gizartea, eragile sozioekonomikoak,

euskal erakundeak eta gobernuko sailak inplikatu egin ditu, alderatzeko eta maila anitzeko informazioa biltzeko sistema baten bidez: Irekia plataformaren bidez; Eusko Jaurlaritzako ordezkariari egindako 45 elkarrizketekin; erakundeei eta eragile sozioekonomikoei egindako 50 inkestekin eta Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordearen eta Kanpo Harremanetarako Kontseilu Aholkulariaren aurrean egindako aurkezpenekin.

Horren guztiaren ondorioz, **nazioartekotze-ikuspegia eta helburuak** eguneratu egin dira, nagusiki, XI Legegintzaldiaren Gobernu Programan jasotakoan oinarrituz; halaber, 2030 Agendan ezarritako erronka globalak ebazten laguntzeko konpromisoa gehitu da **nazioartekotzeko bektore komunetan** eta beste batzuei izena aldatu zaie bere bokazioa hobeto islatzeko. Horrez gain, **jarduketa-eremu tematikoak** 19tik 27ra areagotu dira; **lehentasunezko eskualde eta herrialde berriak** definitu dira eta, azkenik, **governantza- eta segimendu-eredua** optimizatu egin da Aginte Koadro berri bat ezarriz BCEren eragina neurtzeko 2020ra arte. Hala, jarduera-tipologiaren araberako Monitorizazio Sistema berri bat ezarri da 2018-2020 epealdian esparru-dokumentuan definitutako 27 jarduketa-eremu horietako bakoitzean egiten den nazioarteko lanaren segimendu xeheagoa egite aldera, bai kualitatiboa, bai kuantitatiboa.